

DEIALDIA

Udal-ekipamenduen bidez Azpeitian kultura sustatzeko
Udalarekin elkarlanean lankidetzaproiektua.

EGILEA

Sanagustin kulturgunea Koop. Elk.

HARREMANETARAKO

M: xaranbarri@kulturaz.eus

T: 674165683

Azpeititik Kultura elkarlanean berritzen

2020ko azaroa

Hitz bitan

EGITEKO MODUAK ALDATZEAN
INGURUA ALDATU DUGU,
GEURE EGIN DUGU.
PERTSONAK, BEGIRADAK,
IDEIAK ETA HAUEK
GORPUZTEKO BALIABIDEAK
ONGI LERROKATU ETA
AURRERA BEGIRAKO BIDEORRI
BAT MARRAZTEKO.

Kultur dinamika aberats eta parte-hartzaile baten abaroan etorkizuneko erronkei aurre egiteko proiektu sendo bat dugu.

Azpeitiak azken hamarkadan eraldaketa sakon bat jasan du eta horren gakoetako bat kultur dinamikaren ekarpena izan da. Zaharkituta genituen azal-mamiak arnas berriitu ditugu eta egunez egun hobetuz joan gara herri moduan eraiki nahi genuen kultur eredua osatuz. Egiteko moduak aldatzean ingurua aldatu dugu, geure egin dugu. Pertsonak, begiradak, ideiak eta hauek gorpuzteko baliabideak ongi lerrokatu eta aurrera begirako bideorri bat marrazteko. Asko ikasi dugu eta gehiago dugu ikasteko, egin dezagun bidea.



Elkarlanean sortzen da kultura

Herritik eta herriarentzat egiten dugu lan. Azpeititik Euskal Herrira begira sortutako proiektu bat da gurea. Gertukoenetatik hasita ehundu dugu harreman sarea, pixkanaka hedatuz, uhinen moduan. Garbi dugu ekimen baten atzean eragile desberdinen jakituria eta energiak batzen direnean are aberatsagoa dela bidea, ondorioz emaitza. Elkarrekin aritzeak begirada zabaltzea esan nahi du, ikastea eskatzen du, eta ikasteak irakastea dakar berarekin. Horra hor sormena eta transmisioaren haria!



/2006

Urte asko dira herriko kultur dinamika saretzen hasi ginela. Kultur Mahaia sortu, bideorri bat adostu eta egiteko modu berri bati ekin genion.

/2020

Oso emaitza onak eman dituen eredu bat jorratu dugu; bizia, bakarra, geurea. Horretan oinarrituta beste hamarkada bat marrazteko garaia da.

AURKIBIDEA

Hitz bitan.....	2
Zer gara eta nor gara.....	5
Kultur jardunaren helburuak, lan hildoak eta ereduak.....	18
Sormena eta transmisioa garatzeko proiektuak.....	28
Zinea.....	56
Komunikazioa.....	58
Kudeaketa ekonomikoaren plana.....	68
Laburpena eta ondorioak.....	60





Zer gara eta nor gara

Kooperatiba herrian eta herritik sortutako proiektua da, azken finean, kulturaren bueltan lan egiteko, kultura guk nahi genuen eran ulertua, guk nahi dugun kultura sustatzeko.

Azpeitiko Kultur Mahaia eta Kooperatiba

> Herriko kultur talde guztiek eta kultur eragile norbanako gehienek osatzen dute Azpeitiko Kultur Mahaia. 1998an lantzen hasi zen proiektu hau herriko kultur eta euskara eragile desberdinekin. **2006an sortu zen eta 2007 hasieratik du martxa iraunkorra eta egituratuagoa.**

> Kronologia laburra atalean azaltzen dugun moduan, 2011n **Sanagustin Azpeitiko Kulturgunea Koop. Elkartea** sortu zuen Kultur Mahaiak. Kooperatiba beraz, herrian eta herritik sortutako proiektua da, azken finean, kulturaren bueltan lan egiteko, kultura guk nahi genuen eran ulertua, guk nahi dugun kultura sustatzeko. Guk kultura egiten dugulako; eta kulturak gu egiten gaituelako.

Nahiz eta ez den erraza kalkulua egitea taldeen tamainak ez dakizkigulako ziur esan dezakegu egun 700bat herritar direla Kooperatibako bazkide .

Bazkide bakoitzaren boto eskubidea honakoa da:

- Bazkide erabiltzaileak: %49
- Bazkide parte hartzaileak: %32,90
- Bazkide langileak: %18
- Bazkide kolaboratzaileak: %0,10

Hemen osaera:

- » Kultur taldeak (herriko 22ak).
- » Teknikariak: Kultur Mahaiko teknikaria: Xabier Gantzarain / Udal kultur teknikaria (M^o Pilar Arrieta).
- » Udal taldeak (egun EH Bildu eta EAJ).
- » Sanagustin kulturguneko langileak.
- » Norbanakoak (Kultur Mahaiak 321 norbanako ditu bazkide).

Kooperatibaren osaera honakoa da:

- » **Bazkide erabiltzaileak:** eskualdeko kultur taldeak zein sortzaile norbanakoak. Egun Azpeitiko Kultur Mahaia osatzen duten 22 taldetatik 20 dira bazkide.
- » **Bazkide parte hartzaileak:** hemen bi motatako bazkideak ditugu:
 - Kultur talde berriak (Azpeitiko Kultur Mahaian ez daudenak) + kultur sortzaile edo kulturzale norbanakoak + proiektuarekin atxikimendua duten herritarrak.
 - Urteotan harremana izan dugun gizarte eragileak (norbanako zein taldeak): kirola, GKE, hezkuntza, euskara, ...(begiratu parte hartze eta elkarlan sarea). Egun guztira 174 dira.
- » **Bazkide langileak:** Kooperatibako langileak. Egun 20 langile 24 tik.
- » **Bazkide Kolaboratzaileak:** gainontzeko gizarte sarea da (proiektuarekin atxikimendua duten gizarteko norbanako edo enpresa sarea). Egun denera 89 dira.

Kronologia laburra

Urtea	Gertaera
2006ko otsailak 16	Azpeitiko Kultur Mahaia eratzen da.
2006an zehar	Azpeitiko Kultur Mahaiaren egituraketa eta eraketa
2006ko abenduak 4	Azpeitiko kultur jarduera diagnosia burutzen da eta ondorioak plazaratzen dira. Plan eragilea martxan jartzen da.
2007	Plan eragilea jarraikiz, Kultur Mahaia Azpeitiko kultur jardueraren erdigune bilakatzen da.
2009ko martxoak 4	Kulturzale K.E.-aren sorrera.
2010eko abenduak 10	Sanagustin kulturgunea zabaltzen da. Udalak bere kudeaketa Azpeitiko Kultur Mahaiaren eskuetara bideratzen du probisionalki berak ez duelako bitartekorik azpiegitura kudeatzeko.
2011ko apirilak 7	Azpeitiko Kultur Mahaiak (AKM hemendik aurrera) Sanagustinen ustiapenerako udal deialdira publikora proiektua aurkezteko Sanagustin Azpeitiko Kulturgunea Koop. Elk. sortzen du (Kooperatiba hemendik aurrera).
2011ko maiatzak 14	Kooperatibak lehiaketa publikoa irabazten du. Kontratuaren epea 8 urtetakoa (2019) da hamabi urtera arte luzagarria (2023) urtez urte.
2011ko uztailak 22	Kooperatibak Sanagustinen kulturgune osatua irekitzen du.
2013ko urtarrilak 11	AKMren ohiko batzarrean Kooperatibaren gaur egungo bazkide egitura onartzen da. Sanagustin kulturguneak herrian nahiz herritik kanpo izan duen harrera ezin hobia mantentzeko edo indartzeko bitarteko ekonomikoen hazkunde progresibo bat onartzen da.
2013ko ekainak 12	Kooperatibako ohiko batzarrean AKMak eginiko eskaera garrantzitsua onartzen da. Kultur sormena eta belaunaldi desberdinen arteko transmisioa lantzeko dinamika martxan jartzen da.
2014ko irailak 13	Kooperatiba Soreasu antzokiaren ustiapen deialdi publikoa irabazten du barne eztabaida eta parte hartze prozesu indartsu baten ondoren lehiaketara aurkeztuz. Kontratuaren epea 2019ko iraila.

Urtea**Gertaera**

2014ko abenduak 27	Kooperatibak, 2016-2020 Plan Orokorra burutzeko bere jardueraren barne eta kanpo azterketak onartzen ditu: Azpeitiko Kulturaren argazkia eta Kultumetria.
2015-eko urtarrillak 7	Bi azterketak martxan jartzen dira prozesu parte hartzaile haundi baten bidez. Guztira 812 lagunen parte hartzearekin osatzen da Azpeitiko Kulturaren Argazkia eta Kultumetria azterketak berriz 662 lagunen parte hartzearekin osatzen da.
2015eko uztailak 22	Kooperatibak eta prozesuan parte hartu duen Kultiba UPR enpresak azterketen ondorioak aurkezten dituzte. Ekimen honek izan duen inpaktu soziala, kulturala eta ekonomikoaren datu aipagarriak (edo ikaragarriak) azaltzeaz gain proiektuak bere garapenerako ildo nagusiak ezartzen dizkigu: sormena eta transmisioa lantzeko espazio egokiagoen beharra, komunikazio hutsuneak eta proiektuaren parte hartze dinamikaren jasangarritasuna dira hobekuntza bat behar dutenak. Txostenak eransten dira.
2015-eko irailak 24	Komunikazioa indartzeko eta parte hartze dinamika jasangarriago bihurtzeko bi ekimen desberdin martxan jartzea onartzen da: - Komunikazio atala indartzeko asmoarekin Kulturaz.eus web gune berria sortzea barne eta kanpo komunikazioa indartzeko lehen daukagun webgunea zaharkitua dugulako. - Kooperatiba Garapen I. Fasea: Kultura eta gizartearekiko konexio plana martxan jartzen da gizarteko hainbat esparrurekin dugun konexioa jasangarriago bihurtzeko.
2016ko urtarrillak 9	Azpeitiko Udalak AKMri eta bide batez Kooperatibari Soreasu sormen gunea proiektua burutzeko prozesu parte hartzailea martxan jartzeko eskatzen dio.
2016ko uztailak 21	Prozesuaren lehen ondorioak plazaratzen dira eta Soreasu sormen gunea proiektua martxan jartzea onartzen da.
2017ko ekainak 15	Kooperatiba Garapen II Fasea amaitu eta onartzen da. Gizarte eragileak Kooperatibako bazkide izatera pasatzen dira. Barne komunikazioa asko indartu da eta parte hartze dinamizatu.
2017ko uztailak 13	Naiz eta kanpora begira aurretik martxan egon, barne komunikazio atalak guztiz sendotuta eta garatuta kulturaz.eus web gune osatua aurkezten da.
2018ko abenduak 19	Bi urtetako parte hartze prozesu luzearen ondoren, Soreasu sormen eta transmisio guneko (Dinamo) proiektua oso osorik eta aho batez onartzen da AKMren ez ohi-ko batzarrean. Bertan 2019ko ekintza nagusiak aztertu eta onartzen dira.
2019ko apirilak 6	Dinamoaren obrak amaitzen dira. Barne mailako batzar eta ate irekien ekimen bat antolatzen da. Dinamo lau eremu desberdinetan banatzen da: hitzaren eremua, gorputzaren eremua, irudiaren eremua eta soinuaren eremua.
2019ko abendua	dinamo.eus web gune berria martxan jartzen da eta kulturaz.eus guneraekin lotura osatzen da.
2020an zehar	Pandemian egoeran ere kultur programazioari eta proiektuei eustea lortu dugu.

Enpresaren izaera juridikoa



Sanagustin Azpeitiko Kulturgunea Kooperatiba Elkarteak kontsumoko kooperatiben barne kokatzen da, izaera guztiz soziala du, **irabazi asmorik gabekoa da -irabazi guztiak herriko kultur eta gizarte arora bideratzen dira-** eta babestutako kooperatiben artean dago.

“Kooperatibaren izaera malguak gure neurriko kudeaketa tresna egituratzea ahalbideratu digu”

Ereduaren ezaugarri nagusiak eta baloreak

Gure ustez kulturaren egiteko nagusietako bat pertsonari munduan bere tokia bilatzen laguntzea da. Norbere burua eta ingurua hobeto ezagutzeko baliabideak eskaintzea, nor izaten ikasi inor baztertu beharrik gabe, inor ahaztu gabe.

Hain justu ere horixe da kooperatibak bere buruari agindua diona, Azpeiti mailan Kultur Mahaiaren erreminta izan hainbat eta hainbat zerbitzu eta tresna herritarren eskura jartzeko. Eraikinak dira, dinamizazioa, kudeaketa, aholkularitza, finantzaketa, zerbitzu teknikoak, komunikazioa, ostalaritza ...

Gure kooperatiba ez da oasi bat, baina asmo sozial argiko enpresa bezala funtsezko xedea dugu espazioa, denbora eta babesa eskaintzea kultur gose eta egarri denari, izan norbanako edo izan eragile. Aldi berean, ondotxo dakigu kultur fabrika honen jardunari eusten diona elikatzen duen komunitatea bera dela: herritarrak, kooperatibako bazkide eta langileak, Azpeitiko Udala, eta beste hainbat erakunde.

Kultur jardun duin bati bide eman nahi diogu lehia eroaren eta datu ekonomikoen diktaduraz haratago. Aurreko guztiagaitik oso garrantzitsua da proiektu honentzat eredu eta balio konkretu batzuk ardatz hartuz gure jarduera aurrera eramatea.

Hemen horietako batzuk:

Pertsonak balioan

Pertsona da eredu honen ardatz nagusia aurreko lerroetan azaldu dugunez. Pertsona jartzen dugu erdigunean eta pertsonengan inbertitzea dugu helburu. Langilea ardatz hartu eta balio erantsi moduan ulertzen dugu, duintasunez, elkarren harteko konpromisoa eta horizontaltasuna sustatuz, proiektuaren gardentasuna mantenduz eta talde zein norbanako ezberdinen inplikazioa bultzatuz.

Horretarako langileen lan baldintzak berdintzea eta normalean prekaritatean dauden lanpostuak baloratzea izan zen proiektuaren diseinutik hartutako lehen erabakia. Kooperatibako langileak proiektuarekin konpromiso osoa erakusten dute eta hori ezinezkoa litzateke baldintzak berdindu ez bagenu. Horrela jarraituko dugu aurrerantzean ere.

Bezeroen alde diardugu lanean eta arreta eta tentu haundiz tratatzeaz gain beren ekarpenak ezinbestekoak ditugu. Sistematizatuta dauzkagu kultur ekitaldi, emanaldi edo proiektu desberdinetan eskaera, balorazio, hobekuntza eta ekarpen orriak eta datozen urteetan oraindik eta gehiago sakondu nahi dugu ematen ditugun zerbitzu desberdinen balorazioak hobeto jasoz eta aurrez ere egin ditugun parte hartze dinamika garrantzitsuen emaitzak hobeto konpartituz.

Kudeaketa horizontala helburu

Kudeaketa guztiz horizontala egitea dugu helburu nagusienetako bat. Horretarako behar beharrezkoa da Kooperatibaren bazkide eta langileak eta Azpeitiko Kultur Mahaia kooperatiban gertatzen den guzti guztiaren jakitun izatea uneoro. Horretarako kooperatibaren barne funtzionamenduko arauak (estilo liburua, langile hitzarmena, zerbitzu eta atentzio prozedurak,..) langile eta bazkide batzuekin osatutako lantaldeetan eratu dira.

Barne komunikazio oso potentea dugu baina hala ere astean pare bat bilera egiten ditugu langileak proiektuan bere osotasunean sar daitezten. Oso garrantzitsua da hori. Kontseilu sozial, asteroko zuzendaritza bilera, sail desberdinen bilera, bilera ezohikoak,... guzti guztiak izaten dute akta bat eta langile guztiei banatzen zaie eta beren ekarpenak egiteko aukera utzi ere bai.

Datozen urteetan kudeaketa guztiz horizontala eta partekatua lortzeko helburua dugu.

Jardueraren balorazioa

Egiten dugun jarduera guztiek eta ematen ditugun zerbitzu guztiek dute balorazio orri bat. Kooperatibaren jarduera guztietan jasotzen ditugu balorazio orriak (edo post orriak) eta horrek ematen dugun zerbitzua edo eskeintzen ditugun ekimenen antolamendua hobetzeko balio digu. Komunikazio haundia eta egokia lortzen da balorazio orri hauek direla eta.

Gardentasuna

Horrelako herri ekimenik ez dago aurrera ateratzerik gardentasuna ardatz duen eredurik gabe.

Gardentasuna eskeintzen diogu bazkideei hamabost egunean behin bidaltzen diegun boletinean eguneroko kudeaketa osoaren berri emanaz.

Langileei astero burutzen diren bilera guztien aktak guztiekin bidaltzen zaizkie eta ekarpenak egiteko aukera ere bai. Kontseilu soziala urtean 5-6 aldiz ospatzen da eta bazkide ez diren langileei ere bai bertaratzeko aukera ematen zaie. Nahiz eta boto eskubiderik ez izan informazioa jasotzen dute eta besteok bezala ekarpenak egiteko aukera ere badute.

Arlokako lantalde desberdinekin informazioa elkartrukutzen dugu bere parte hartzea eta elkarlana gero eta indartsuagoa bihur dadin.

Kultura Batzordera (urtean 4 edo 5 aldiz) azaltzen gara Azpeitiko Udala eta bide batez Azpeitiko herriari gure ekitaldi, ekimen, proiektu, arazo, gora behera, aurrera begira ditugun ideia nagusi edo arlo ekonomikoa osotasunean azaltzeko. Horrez gain jarraipen batzorde bat ere osatua dugu Azpeitiko Udaleko kultur zinegotziarekin egunerokotasunean ditugun aukera, zalantza edo ideiak konpartitzeko.

Urte amaieran kultur jardueraren gastu eta sarrera ekonomiko guzti guztiak (faktura, nomina, laguntza eta abar luze bat) Azpeitiko Udaleko kultur sailean azaltzen dira. Oso detailatuta eta laburpen / gida erraz batekin. Gastu guzti hauen kopia guzti guztiak Udalean bertan geratzen dira Kooperatibaren kudeaketa hasi genuen lehen egunetik geuk horrela nahi izan dugulako.

Gardentasun ildo hauez gain barne araudian onartuta ditugun hainbat neurri eta prozedura ere baditugu kooperatiba bat garen heinean: batzarrak, kontseilu desberdinak, galdeketak, ekarpenak egiteko bide desberdinak...

Honekin guztiarekin Kooperatibaren araudia betetzeaz gain herriari zor diogun gardentasuna eta feed-back zuzena lortzeko moduan izan gara eta aurrera begira ere horretan mantendu edo indartu nahi da.

Formazioa

Pertsona eta kolektibo desberdinen etengabeko formazioa da beste elementu garrantzitsu bat. Urtero bitarteko ugari eskeintzen ditugu kooperatibako langileak formatzeko maila anitzetan. Pertsonen garapen eta malgutasun profesionala indartzen saiatzen gara eta aurrerantzean ere berdin jarraituko dugu. Horretarako kurtso, master edo tailer desberdinetara apuntatzeko aukera ematen zaie langileei.

AKMko eta bestelako kultur talde ugari (nahi duenari) kudeaketa, promozio eta aholkularitza lanak egiten zaskio. Lan hauek burutzean saiatzen gara beti ere taldeei erakusten nola egiten diren lan hauek hurrengoan edo 2 edo 3 aldiz batera egin ondoren beraiek bakarrik egin ahal izateko. Horrela hainbat talderi riderrak osatzen zaizkio, promozio edo ibilbidea azpimarratzen den ikusentzunezkoak egin, aholkularitza fiskala, administrazio lanak, dirulaguntzak eskatu,...

Helburua poliki poliki talde edo norbanako desberdinak autonomia hartzen joatea da.

Gizartea: parte hartzea eta elkarlana

Azken urteotan lurraldeko plano kulturallean modu estrategikoan kokatu gara gure jardunaren bitartez eta gizarte eragileekin elkarlanean aritzea da gure eguneroko jardunaren gakoetako bat. Eskuartean duzuen txosten honetan azaltzen dizkizuegun proiektuak dira horren erakusle.

Kooperatibak, bere hastapenetik gizarte eragile desberdinekin kontatu du proiektua hau elkarlanean burutzeko. Azpeitiko Kultur Mahaiaren sorreran bertan ere eskualdeko gizarte eragile desberdinekin partekatu zen. Harreman estua eta luzea dugu beraz eragile hauekin eta ordutik sortu diren berriekin. Kultumetria azterketak zioenez proiektu honek eskualdean gizarte eragile berriak sortu edo aktibatzeasko balio izan du.

Honekin ingurune sozialarekiko bere konpromisoa bultzatu dugu, orain arte gure ikur izan dituen parte hartze eta elkarlan dinamikak indartuz, eragile ekonomiko zein sozialekin proiektua gehiago partekatuz, komunitatea indartuz, eta bide batez parte hartzea eta elkarlana jasangarriago eginez. Modu estrategikoan aurrerapausuak eman eta gipuzkoako kultur-gizarte garapenean kohesio elementua izatea nahi dugu eta aurrerantzean ere lan ildo hori jorratzen saiatuko gara. Eta guzti guztia, Kooperatiba bera lehiakorrago bihurtuko duen ziurtasun osoarekin.

Euskara

Sanagustin Azpeitiko Kulturgunea Koop. Elk.-arentzat erronka bat da euskararena. Gure erreferentzia mundua euskalduna da, eta gure lan ildo guztiak euskaraz dira, euskaraz sortu, euskarazko) kultura transmititu eta euskarazko ekitaldiak antolatu beraien kontsumoa bultzatu, sustatu eta indartuz.

Horretarako elkarlanean landutako urteko programazio aberats bat eskaintzen da %95ean euskaraz, ondoren aipatuko ditugun proiektuak ere bere osotasunean euskaraz dira, komunikazioa eta hedapena 100%ean euskaraz burutzen da, nahiz eta horrek gure ekitaldi eta proiektuen hedapena murriztu.

Kooperatibaren maila guztietan euskara izango dugu orain arte bezala ardatz, euskara modu integratzailean landuz, EBPN eta ESEP planei jarraituz, Sanagustin kulturgunea, Soreasu antzokia eta Dinamoa euskararen plaza izaten jarrai dezaten. Euskara bultzatzeko proiektu konkretuak ditugu hurrengo urteetan: Hitzaren eskola, kazetaritza liburuak, dokumentazio lanak, idazketa eta itzulpengintza tailerrak, Azpeitiko mintzak, Mintzapraktikak,...

Horrez gain Elegune zentro teknikoaren laguntzarekin bikain zirtagiria ateratzeko tramitetan gabilta eta Azpeitiko Euskara Patronatoarekin harreman zuzena eta jarraitua dugu eta Euskaraldia, Mintzapraktikak eta antzeko ekimenetan ere parte hartze zuzena izaten dugu.

Euskararen berreskuratze planen helburuekin bat egin eta horiek sustatuko ditu Sanagustin kulturguneak. Helburu nagusia, Euskal Herrian maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea da.

Hori lortzeko, hiru helburu estrategiko hauek dauzka:

- Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioak etenik izan ez dezan lortzea.
- Euskararen erabilera gizarteko esparru guztietara zabaltzea.
- Euskara bera, komunikazio tresna den aldetik, lantzea eta aberastea. Euskararen elikadura.

Parekidetasuna

Bere hastapenetik Sanagustin Azpeitiko Kulturgunea Kooperatibaren oinarrietako bat izan da genero berdintasunaren ikuspegia. Azpeitiko Udaleko Parekidetasun saila, Emakumeen txokoa eta Basanderak eragileak bide lagun izan ditugu urte hauetan eta elkarrekin osatu ditugu Kooperatibako organo eta funtzio nagusienetan genero berdintasunari buruz hartu beharreko neurriak. Aurrerantzean ere horrela jarraitu nahi dugu.

Emakumeen presentzia kooperatibako organo nagusienetan, zuzendaritza mailan, langileetan kultur ekitaldi, ekimen eta proiektuetan, aitorpenean eta abar bermatua dugu gure estilo liburuan zehaztua baitugu era honetara “Hizkuntza ez sexistaren erabilera sustatu. Emakumeek sortutako kultur espresio ezberdinak bultzatuko dira, eta emakumeek kulturari egindako ekarpenaren aitortza bultzatuko da. Ahalegin berezia egingo da emakumeek ere aukera berdinetan parte hartzeko. Arreta jarriko da ordutegiekin, eta herritarren zaintza lanak eta parte hartzea uztartzeko zaintza zerbitzua kontratatuko da beharrezkoa den kasuetan. Betidanik gizonezkoenak izan diren lanpostuetan emakumeen kontratazioa bultzatuko da”.

Herria

Azpeitia balioan ipintzea da gure beste helburuetako bat. Herriko kultur dinamikari bere osotasunean laguntzen diogu espazioak, zerbitzu tekniko indartsua, bestelako zerbitzuak eskainiaz baina ez gara kultur arlora mugatzen. Ekonomia arloan adibidez lehen sektoreari laguntzeko elementu aktiboa izan gara baserritarren azoka, Azoka Herritik eta orain Elikagunea indartzeko helburuarekin. Bertan, Azte, Elikagunea, kirol talde desberdinak,...gizarte eragile talde haundi batetako bazkideak gara eta ekonomia sektore anitzei guk eman dezakegun tamainako laguntza eskeintzen diegu. Aurrerantzean ere horrela jarraitu nahi dugu.

GURE EREDUAREN OINARRIAK HOBETO ULERTZEKO I. ERANSKINEAN KOOPERATIBAKO ESTILO LIBURUA ETA 2019-2020 LAN HITZARMENA ERANTSEN DITUGU.



Orain arteko ibilbidea

Proiektua sortu zenetik hamalau urte pasa dira eta oso gustura gaude urte hauetan zehar izan duen ibiliarekin eta hartu duen dimentsioarekin. Egun, proiektu honen eredu, filosofia edo lana oso ezagun bihurtu dira euskal kultur panoraman, eta beraz, Azpeitia bera egin da ezagun euskal kultur esparruan.

Hamahiru/hamalau urtetako ibilbidean herriko kultur esparruko eragile nagusienak mahai baten inguruan jartzetik, euskal kultura modu integralean sustatzera pasa gara, eredu autonomo baina partekatu baten ideiarekin Kulturaren fabrika osatu nahian.

Egun, 25 langile dituen “enpresa” bat sortu eta bultzatu dugu (28 langile izatera ere iritsi gara), herritik sortua eta eredu horizontal eta gardena duena, etengabeko garapen fase batean kultura gizarte mailako eremu guztietara eramanez, proiektua eragile ekonomiko, sozial eta administratiboekin partekatuz, herri kohesioa indartuz, parte hartze eta elkarlan dinamiketan sakonduz beti ere pertsonen nortasuna osatzeko helburuarekin, kultura helburu dugularik.

Orain arteko ibilbide osoa pare bat orritan aurkeztea ezinezkoa egiten zaigunez, ereduaren eta dinamikaren laburpen txiki bat egiteaz gain azken urte hauetan jorratutako kultur jardueraren berri ere ematen da.



- ▶ Azken urteetan Kooperatibak euskal kulturaren sustapen integralaren garapenean sormena, transmisioa, eta kontsumoa bultzatzeko 73 egitasmo, ekimen edo proiektu bultzatu ditu. Era guztietako proiektu eta ekimenak izan dira baina denak helburu bakarrarekin: euskal kulturaren sustapena. Arlo eta adar asko ikutu ditugu: herriko kultur sortzaile eta norbanakoei zuzendutako dinamizazio koordinazio eta promozio ahalegin ugari, gazteak erakartzeko proiektuak, hezkuntzara bideratutakoak, publiko berriak lortzea helburu zutenak, sortzaileei laguntzeko egoitza ugari, sortzaile berri beren lanak taularatzeko ahaleginak, tailerrak, kurtsoak,... Lanketa guzti honen fruituak jasotzen ari gara eta hurrengo urteetan bide hau gehiago eta hobeto koordinatu nahi dugu.
- ▶ Bederatzi urte hauetan, (2019 amaiera arte) 1.411 ekitaldi antolatu ditugu, astean 3-4, gure ereduari jarraikiz, astegun zein asteburuetan, diziplina desberdin arteko oreka mantenduz, sortzaileen jatorria eta hizkuntza ereduak mantenduz,... Urtez urte ekitaldien kopurua goraka doa baina azken 2 urteetan urteko 200 bat pasatxon gelditu da.
- ▶ Kultur ekitaldien harrera ikaragarri ona izaten ari da: Guztira 2019 amaiera arte 300.000 ikus-entzule inguru izan ditugu eta 2019an goia jo genuen guztira 55.000 ikus-entzule baino gehiago izan ziren eta kooperatibak antolatutako 205 ekitalditan. 2012tik (lehen urte natural oso bat) ikus-entzule kopurua laukoiztu egin da, bai urte osoko datuetan eta baita ere ekitaldietako mediatan ere. Hazkunde honen arrazoa Kooperatibak herriko eragile desberdinekin duen harreman mota estua, Udalarekin bat eginik Egutegi bateratua ekimenaren bidez kultur ekitaldiak osatzeko eskeintzen dituen erraztasunak eta euskal kulturaren sustapen integrala lantzeko urtero urtero bultzatzen dituen proiektu edo egitasmo bereziak dira.
- ▶ Euskal Behatokiaren arabera, bai kultur ekitaldi kopurua eta baita ikus-entzuleena ere 180.000 binztaletik gorako herri edo hiriei dagokiona da. Azpeitiak 15.000 ditu.
- ▶ Autonomia, parte hartzea eta elkarlana formulak bere fruituak ematen ditu. Urte hauetan elkarlanean eta parte hartzean oinarritu eta sustatu diren ekitaldiak ekitaldi guztien %79 dira. Hau da Kooperatibak ekitaldi guzti horietatik %21a programatu du eta programazio hau arlokako lantaldeetan erein da.
- ▶ Gainera 2016an hasitako Kooperatibaren garapenaren II fasea, parte hartzea eta elkarlana modu eraginkor batean sistematizatu ditugu 2017an eta atondu 2018 eta 2019an barne komunikazio eraginkorra lortuz komunikazio teknologia berritzaileak erabiliz. Deskargatu Kulturaz app aplikazioa adibidez (play storen edo aple app storen).
- ▶ Herriko sortzaileak izan dira urte guzti hauetan kultur emanaldi hauen protagonista nagusiak. Talde eta norbanako desberdinek urte hauetako programazioaren %56 osatu dute. Oso garrantzitsua da datu hau. Proiektu hau herritik sortu zen, herritarrekin batera, herriko kultur dinamikaren babesea, beraiek dira proiektuaren protagonista nagusiak, kooperatibaren bazkide nagusiak eta beraien lana dinamizatzea, laguntzea eta koordinatzea da gure zeregin nagusia. Hurrengo urteetan ere bide berdinetik jarraitu nahi dugu.

- ▶ Urte guzti hauetan burututako ekitaldien %92 euskaraz izan dira eta Euskal Herriko taldeen ekimenak plazaratu dira %93an. Ezagunak, oso ezagunak eta hasi berriak. Azken urteotan bestelako datu batzuk jasotzen hasiak gara: emakumeen presentzia kultur ekitaldietan (sortzaileak / oholtzaratzen direnak), proiektu desberdinetako parte hartzea, sormen dinamikak eta mediazio dinamizazio taldeen identifikazioa, ...
- ▶ Kultur proiektuarekin batera, eredia izan da gizarte esparruan eragin nabarmena izan duena. Kultur esparrutik kanpo eskualdeko eragile gehienekin harreman zuzena du kooperatibak: emakumeak eta parekidetasuna, gizarte elkarteak, fundazioak, enpresak, ikastetxeak, Baigera jubilatuen elkarteak, Gaztetxea, kirol taldeak, tabernariak, dendariak, baserritarrak... guztira 101 gizarte eragilerekin hainbat hartu-eman finkatuta dauzkagu, proiektu batzuk elkarlanean burutuz, planifikatuz edo, besterik gabe elkarren berri emanez. Horietatik asko Kooperatibaren bazkideak dira gainera.
- ▶ Azpeitiko Udalarekin harreman ezin hobea dugu. Etengabeko harremana dugu kultur zinegotziarekin eta kultur teknikariarekin eta elkar trukutzen dugu informazioa eta ekarpen ugari egiten dira alde batera zein bestera. Harreman hau hobeto sitematizatzea izango dugu hurrengo erronka bi aldeentzat kultur kudeaketa errazteko.
- ▶ Kooperatibaren proiektuarekin interesa agertu duten herri eta eskualdeetako kultur edo erakundeetako ordezkarien bisita asko izan ditugu (Gasteiz, Azkoitia, Orio, Lasarte-Oria, Bergara, Hernani, Bera, Elgoibar, Agurain, Irun, Zarautz, Ordizia, Donostia, Markina-Xemein, Zumaia, Debagoiena, Beasain, Lezo, Bilbo, Hendaia, Aretxabaleta, Agurain, Hernani, Llodio, Portugalete, Erandio, Llodio, Hasparne, Zornotza, ...). 2020an ere 29 herri edo hirietako ordazkeraiak (Udalak) edo eragileak izan genituen gure proiektuaren berri jakin nahian. Proiektuarekiko jakin nahia eta atxikimenduak gero eta gehiago dira kultur zein gizarte eragile, administrazio publiko zein norbanakoetan.



“Egin ezazu maiz zure adiskidearen baratzerako bidea, sasiak bidea ikusten ez eragozteko”

- ▶ Horretaz gain, Azpeititik kanpo ere aritu gara egitasmoa azaltzen (Errenteria, Alegia, Mondragon Unibertsitateko Huhezi Fakultatea, Tuter, Bilbo, Balmaseda, Durango, Bergara, Hendaia, Iruñea, Maule, Bizkaiko Foru Aldundia, Atarrabia, Uharte, Gazteiz, EHU, Agurain, .. eta beste hamaika herri edo hiritan). Euskal Herri osoan azaldu dugu, beraz, proiektua zuzenean; Hego nahiz Iparraldean.
- ▶ Azken urteetan proiektu honen hainbat atal atzerrian azaltzeko modua ere izan da: Katalunia (Bartzelona), Andaluzia (Granada), Frantzia (Nantes), Belgika (Amberes), Publiko berriak erakartzeko estrategiak, parte hartzea, Eredua: praktika egokiak, .. gai konkretuak zituzten foroetan aritu gara gure egitasmoaren zati batzuk azaltzen. Bai Euskal Herrian edo atzerrian gure proiektua edo eredia azaltzerakoan Azpeitia izan da protagonista.
- ▶ Euskal administrazio publikoekin ere harreman zuzenak egin ditugu, eta proiektuak azken urteetan kultur arduradunen arreta haundia piztu du. Eredua bera, publiko-pribatua (Udala / irabazi asmorik gabeko herriko Kooperatiba), publiko berria lortzeko estrategiak, gazteenganako irisgarritasuna, sortzaileei eta herriko talde zein norbanakoei ematen zaizkien erraztasunak, komunikazioa, praktikak, proiektuak,..
- ▶ Egun oso harreman ona eta etenik gabea dugu EJ eta GFArekin (EJrekin batez ere). Gure proiektua bere osotasunean ulertzeaz gain urtez urte gure eredia duen bitartekoak eskeintzen hasi dira Euskal Herriko kultur esparruan.

Kultur jardunaren helburuak, lan ildoak eta eredia

Proiektuaren irizpideak iparrorratz

Proiektu honen hastapenetik euskal kulturaren sustapena ahalik eta modu osoenean jorratzeko ahaleginetan gabiltza.

Datozen urteetan ere euskal kultura balioan jartzeko ahalegina egingo dugu bere sustapena modu integral batean landuz eta giza balioak indartuz. Eredu parte hartzaile, dinamiko eta anitzean oinarritu nahi dugu, kultura eta gizartearen arteko konexioaren lanketan urtez-urte gero eta gehiago murgilduz.

2020tik aurrerako kultur jarduera aztertzerakoan 2013 urtetik hasitako azterketa / ikerketetak eta parte hartze prozesuetan (Azpeitiko Kulturaren Argazkia, Kultumetria, Soreasu sormen gunearen parte hartze prozesua, Dinamoa, ..) ateratako neurgailu eta adierazleak izango ditugu oinarri. 2020 amaieran antzeko azterketa bat burutzen ari

gara eta hau izango da aurreko guztiarekin batera datozen 5 urtetarako eredia eta lan ildoak markatuko duena.

Beraz 2011 urtean hasitako bidearekin jarraitu nahi dugu Azpeitiko Udalarekin balio, prozesu eta prozedura guztiak elkarbanatuz, gizartearen egon daitezken aldaketei arretaz begiratuz eta elkarrekin uneen behar diren aldaketa edo egokitzapenak eginez.

Gure kultura eredian herriko kultur sormenaren dinamizazioa eta euskal kulturaren sustapena dago batik bat (bestelakoak baztertu gabe), hau da, euskaraz egiten den kultura. Horiek sustatzeko eta babesteko sortutako kooperatiba da eta asmo horretan jarduten dugu lanean irizpide eta helburu jakin batzuekin.



1

Euskal kulturaren sustapen integrala: sormena, transmisioa eta ikusgarritasuna lantzeko kultur proiektu anitzak eta programazio jarraia eta oparoa. Herritik hasi eta Euskal Herri osora.

2

Autonomia eta elkarlanaren arteko oreka ardatz. Ahalmen ekonomiko propioaren eta gizarte eragile desberdinen elkarlanaren bidez, kultur ahalmena.

3

Dinamikoa, parte-hartzailea, bizia, zabala, eskualdeko taldeen, beste eragileen eta sortzaile berrien plaza. Euskararen gunea.

Proiektu ekintzaile honen ideia eta funtsa beraz **euskal kulturaren sustapena modu integral batean lantzea da.**

Kultur sormena eta transmisioa sustatzen ditugu horretarako bitarteko garrantzitsuak jarriaz (dinamizazioa, koordinazioa, aholkularitza, proiektu eta ekimen ugari kultur diziplina guztietan, eta Azpeitiko Udalaren beste inbertsio garrantzitsu baten emaitza bezala sormena eta transmisioa lantzeko espazio egoki bat).

Kultur programazio aberats, orekatu eta zabal baten bidez, herrian eta inguruan euskal kultura bultzatu, egituratu eta indartzeko. Urtetik urtera datu hobekak ditugu ikusgarritasunaren atalean. Baina proiektua ez da hor amaitzen. Gure jardueran kultur sormena eta belaunaldien arteko transmisioak ikusgarritasunak adina pisu hartu du eta urtero urtero 15-20 proiektu edo ekimen sustatzen ditugu sormena eta transmisioa landuz euskal kultura dinamizatzeke.

Euskal kultur esparruan kultur eragile erreferentzial bilakatu den proiektu hau berezia eta bakarra da Euskal Herri osoan, kultur eragileen eta azpiegituren koordinazio eta kudeaketa soil bat izateaz haratago, proiektu bizi, zabal, partehartzaile eta dinamiko delako.

Herriari zabalik dagoen proiektua da, kultur arlotik haratago ere badoana, aurrekontu indartsu baten bidez zerbitzuen esparruan Azpeitia, eskualdea eta lurraldeari bultzada ekonomikoa ematen ari dena.

Horrez gain, proiektuaren filosofia eta barne funtzionamendua eredugarri bihurtu dira euskal kooperatiben esparruan.

Produktu berria eta berritzailea da Euskal Herrian, izaera guztiz soziala duena eta balore eta balio finko konkretuekin gizartean kulturaren bidez bestelako eredu bat zabaldu nahi duena. Oreka da gure egunerokotasunaren ikur. Oreka sormen, transmisio nahiz ikusgarritasunean, oreka antolatzen ditugun ekitaldietan, oreka diziplina ezberdinen artean, oreka herriko eragile desberdinek sustatzen dituzten emanaldietan, oreka adin eta espektru guztientzako ekintza edo ekitaldiak antolatzerakoan,...

Guzti hau gure eredu oinarri hartuta, helmugara inoiz iritsi gabe, bidea bera bait dugu helburu. Irabazi asmorik gabeko Kooperatiba sozial bat gara langilea ardatz hartu eta balio erantsi moduan ulertzen dugu, elkarren harteko konpromisoa eta horizontaltasuna sustatuz, proiektuaren gardentasuna mantenduz, eta talde zein norbanako ezberdinen inplikazioa bultzatuz.

Bide hau ordea ezin dugu bakarrik egin eta 2021etik aurrera ere bide lagun izango ditugu herriko eta Euskal Herriko kultur eragile nagusienetatik jasotzen ari garen asmo edo programak, ekimen eta garapen egitasmoak, eta berauen eta gure proiektuaren urteetan egindako partekatze eta saretze lanak.

Gaur egun erronka horretarako oso ongi kokatuta gaude.

Gure kultur jarduera Euskal Herriko kultur jardueraren erdigunean kokatzen ari da, parte hartzea eta elkarlana euskal administrazio nagusienetara iritsi da eta horiekin eta batez ere Azpeitiko Udala eta herria aldamenean ditugularik erronka handi honi aurre egiteko gai izango garelakoan gaude.

Ondoren datozen urteetan kultur jardueran jorratu nahi ditugun nondik norakoak azalduko ditugu. Alde batetik kultur ekitaldien dinamika izango dugu aipagai, bestetik euskal kulturaren sustapena, sormenaren dinamizazioa eta belaunaldien arteko transmisioan eragiteko ekimen edo proiektu desberdinak azalduko ditugu eta azkenik zinea eta komunikazioari buruzko aipamen batzuk egingo ditugu.

Kultur ekitaldien dinamika: ikusgarritasuna

Kooperatibak kultur eskaintza zabala eta oparoa izan du azken hamar urte hauetan, euskal kultura oinarri duelarik, kultur diziplina eta espresio guztiei orain arte bezala bere lekua eginez. Diziplina desberdinen arteko oreka mantenduz, euskal kultur mailan oso ezagun diren emanaldi edo ekitaldi indartsuenetakoak, sortzaile berrien ekitaldiekin uztartuz, egitarau bizia eta jarraia eskainiz, berrikuntza sustatuz eta kultur komunitatearen beharrei egokituz, programazioari zentzua emanez, euskararen hauspo izaten jarraituz...

Orain arteko ardatzak mantenduz etorkizuneko programazio aberatsa prestatu nahi dugu

Aurrera begira ere datorren hamarkadan kultur programazio aberats bat prestatu nahi da aurreko urteetan bezala honako ardatzetan oinarritua:

- Kultur espresio desberdinen eskaintza: musika, antzerkia, dantza, erakusketak, hitzaldi, mahai inguru, aurkezpenak, proiektzioak, bertsoa,... eta berrikuntza ugari.
- Herriko talde eta sortzaileentzat dinamizazio eta koordinazio lana. Gure helburua programazioaren %55 herriko sortzaileek osatutakoa izatea da.
- Kultur programazio jarraia eta oparoa: hilabetero batz besteko 18 ekitaldi, bi egunetik behin zerbait. Astegunetako nahiz asteburuko programazioa.
- Adin eta espektru desberdineko kulturzaleentzako eskaintza: gazteak, umeak, helduak, adituak, herritar soilak... kulturzaletasuna bultzatuz eta publiko berriak lortzeko aurreko urteetan eginiko azterketen ondorioak kontuan hartu eta estrategia desberdinak martxan jarri.
- Oreka desberdinak kontuan hartzea programazioa osatzean: kultur espresio desberdinen artekoa, espazioen aniztasuna, egutegiarena, orain arte moduan genero berdintasuna ikur, gizarte sare desberdinekin...

Euskarazko kultur eskaintza batik bat (proiektuaren barne EBPN eta ESEP planei jarraikiz), lurraldetasuna indartuz eta herriko eta euskal kultur komunitateko beharrak kontuan hartuz.

Beraz arlo honetan ez daukagu berrikuntzarik, orain arteko bidea da berrikuntza Euskal Herriko kultur panoraman. Herriko kultur dinamikan jarriko dugu atentzioa orain arte bezala, kultur sortzaileak (taldeak eta norbanakoak) indartzeko bitarteko ugari eskainiz.

Horretarako barne komunikazio bide egokiak ditugu. Hauek aprobetxatzen jarraituko dugu. Gazteak eta belaunaldi berriak kulturara bideratzeko ahaleginean jarraitu beharra dago. Momentu honetan datu oso onak ditugu baina etengabeko lanketan jarraitu behar da beraiekin gaur egungo egoera ez dadin moda moduko bat izan.

Programazioa osatzeko Euskal Herriko (gehienbat) eta atzerriko talde eta norbanakoak ekarriko ditugu. Oso ezagunak eta hasi berriak uztartuz herriari eta kulturgintzari zerbitzu egokia emanaz. Honetarako ere bitarteko guztiak ditugu. Momentu hauetan Euskal Herriko puntako talde guztiek Azpeitira etorri nahi dute, gehientsuenak lehen era pasatu dira bertatik bat baino gehiagotan baina guk eskeintzen dizkiegun bitartekoak inon ez dituztela diote. Gainera aurrez askotan aipatu bezala Kooperatiba bera eta Azpeitia eredutzat ditzute askok eta askok. Hori probestu nahi dugu datozen urteetan ere gure programazioan talde hauek eta beste batzuk (Espainia mailan ere bere tokitxo hartzen hasiak gara) sartzeko. Egunerokoa hobetuz eskeintzen dizkiogun bitartekoak hobetuz eta komunikazio sarea indartuz.


Guzti honetan oso garrantzitsua izan da Egutegi Bateratua. Ekimenaren ideiarekin jarraitu nahiko genuke, espazioak lehenik eta behin herriko kultur dinamikara bideratuz, herriko festetan izaten ditugun hainbat eta hainbat ekitaldi espazio hauetan mantenduz, ohiko Udal kultur programazioa babestuz, kultura eta festetatik haratago doazen Udaleko nahiz herriko ekimen guzti guztiei lekua gordeaz eta eskeintzen ditugun zerbitzuak eta bitartekoak mantendu edo hobetuz. Eta nola ez euskal kulturaren sormenean urtez urte lanketa berri eta bereziak eginez, euskal kulturaren belaunaldietako transmisioan sakonduz eta euskal kulturaren sustapenean eta bere osotasunean bestelako eredu berritzaile bat azalduz Euskal Herriko kultur panoraman.

Programazioari dagokionez aurretik hartutako bideari jarraipena ematea da gure asmoa, urtero urtero hobetuz, zerbitzu egokiagoa eskeiniz (ikusentzunezko zerbitzuan oso potentzial handia dugu adibidez), denok bat eginik eta elkarlanerako bideak zabalik mantenduz eta ahal bada oraindik eta gehiago erraztuz edo sistematizatuz. Herri bateko kide gara guztiok, Azpeitiko Udala, Kooperatiba eta herritarrak eta guztion lana da herrigintza eta kultur arloan gutxienez hor izango gara eguneroko lanean herri honek kultur dinamikan daraman ibilbidea mantenduz edo hobetuz.


Hurrengo orrietan azken urte oso bateko datuak eta 9 urte hauetako bilakaeraren berri ematen duten taula eta argazki batzuk aurkezten ditugu.

II. Eranskinean 4/5 urtean behin ateratzen dugun aldizkariak (bi) eransten ditugu.


EKITALDI KOPURUA URTEZ URTE




IKUS-ENTZULE KOPURUA URTEZ URTE




DIZIPLINEN ARTEKO OREKA




EKITALDIEN SUSTATZAILEAK




JATORRIAREN ARABERA



EKITALDIEN KOMUNIKAZIO HIZKUNTZA



GENEROEN ARTEKO OREKA



ANTZERKIAN, EMAKUME-GIZONEZKO DATUAK



DANTZA, EMAKUME-GIZONEZKO DATUAK



ROCK KONTZERTUAK, EMAKUME-GIZONEZKO DATUAK




BESTELAKO MUSIKA, EMAKUME-GIZONEZKO DATUAK







MATXINADA



Sormena eta transmisioa garatzeko proiektuak

Proiektu guzti hauek Azpeitiko Kultur Mahiko eta herriko talde zein norbanako sortzaileetatik abiatutakoak dira. Euren beharrak, jakin-minak eta joerak aztertuta diseinatutako lan lerroak.

Iraganari etorkizun bat ematea, eta etorkizunari iragana

Hasieratik garbi izan dugu kulturari plaza emateaz gain berau barrutik jorratuz emaitza berri eta anitzak sortuko zituzten ekimenei bide eman behar geniola.

Ekitaldien programazio oparo bat eskaintzeaz haratago beharrezkoa dugula proiektuen lan ildo sendo bat martxan izatea. Batak bestea hauspotzen duela eta uztartuta doazen jardunak direla biak ala biak. Gure kulturaren baratzeko jakiak kontsumitzen jarraitzeko ezinbestekoa dugula gure baratza zaindu eta lurra lantzea, alegia.

Horregatik, pixkanaka eta kultur komunitatearekin bat eginda, kultura modu integralean lantzeko hainbat proiektu eta ekimen sustatzeari ekin genion. Egun dozenatik gora proiektu baina gehiago ditugu martxan. Hauek, sormenarekin eta transmisioarekin lerrokatutak daude eta epe ertain-luzeko lanketaketarako bide aberatsak ireki dizkigute. Ezbairik gabe ikuspegi ireki eta osoagoa ematen diote gure jardunari, eta kultura bizitzeko aukera zabalak irekitzen dizkiote kultur komunitateari.

Sortzaile berriei baliabideak eskaintzea, kultura herritarrengana gerturatzea, etorkizuneko kulturzaleak elikatzea eta gure kultura balioan jartzea dira proiektu eta ekimen hauen helburuak, besteak beste. Kultura gure egunerokotasuneko esparru desberdinetan txertatzea, alegia.

Gainera, proiektuek sortzen dituzten dinamikek, kultur komunitatea sartzeko aukera paregabea eskaintzen digute. Herritar ugari kultur asmo desberdinen bueltan harremantzen dira, sinergia berriak sortzen. Horrela, egunero-egunero gertuko kultur sormen praktikek abiatuta harreman sarea ehuntzen doa.

Azpimarratzekoa da ere azken urteotan prozesuetan jarri ditugun baliabideak eta atentzioa. Garbi dugu amaierako emaitza bezain garrantzitsua dela lan hori berau ontzen duen prozesu guztia. Horregatik, ideiak egosten diren uneak eta sormen prozesuak behar dituzten abaguneak zaintzen saiatzen gara. Denbora, atentzioa, jakituria, zaintza, harremanak eta askotarako bitartekoak baliatzen ditugu sortzaileen eta kulturzaleen esperientzia emankorrek ahalbidetzeko.



Lau eremu, hamaika proiektu

Urteetan lantzen joan garen proiektuetatik bakoitzak forma eta izaera propioa hartu du, baina guztiak lau eremutan antolatzen dira. Egun Dinamoia Sormen Gunea denaren proiektuan hasiera-hasieratik eta prozesu osoan zehar parte hartu genuen. Ondorioz, modu errazean lerrokatu dira kooperatiban genituen lan ildo desberdinak sormen gunearen proiektuak jasotzen zituen asmoekin. Horrela, osotasun bakar batean integratu ahal izan ditugu egungo eta etorkizuneko erronkei erantzungo dieten kultur proiektuak.

Hitza, irudia, gorputza eta soinua dira proiektua barnebiltzen dituzten eremuak.

Modu ireki eta aske batean ulertuta proiektuen jarduna antolatzen laguntzen digun egitura sinple bezain baliagarria da. Espresio zehatzenetik hasi eta diziplinen arteko nahasketa zabalenera gerturatzen laguntzen digun begirada.

Eremuok, espazio zehatzetatik haratago doaz. Sanagustin kulturgunean, Soreasu Antzokian eta Dinamoia Sormen gunean gorpuzten diren arren, herriko espazio publikoak ziprztintzen dituzte eta Azpeititik Euskal Herrirako begiradarekin daude pentsatuak. Apurka osatzen joan garen lan moldea da eta zortez azpiegitura horiekin osotasun batean bilakatu dena.



1**Hitza**

Sormen lanaren ardatzean hitza daukaten adierazpide eta jardunentzat dago pentsatua Hitzaren eremua.

Ahotik orrira, begitik belarrira, hitzak har dezakeen edozein forma lantzeko lekua da hau. Literatura, bertsolaritza, itzulpengintza izan litezke batzuk. Hala ere, diziplina bakoitzaren teknikak eta berezitasunak nabarmendu baino, hitza bere osotasunean hartu eta landu nahi dugu hemen. Ohikoaren ohikoz ikusezin bihurtu da hitzaren ahala, bere xumean gure eguneroko bizitza egituratzeko daukan gaitasuna. Hitzak ere ekintzak dira.

2**Irudia**

Bizi gaituen mundua idazteko behar diren grafia guztiak eskura jartzeko eremua da irudiarena. Irudiak dena hartu du aspaldian: dena da irudia, eta denean dago.

Irudiak sortzea inoiz baino errazagoa da, auskalo zenbat egiten ditugun egunero, ohartu gabe; prozesua azkarra da, automatikoa kasik. Irudiaren eremua automatismo hori deseraikitzeke lekua da, prozesua aztertzeke, moteltzeke, gelditzeraino. Irudiaren barrunbeetan arakatzeko, hankaz gora jartzeko, mundua bere horretan emango duten irudiak baino irudia bere horretan emango duen mundu bat egiteko.

3**Gorputza**

Gorputza da arte bizien muina eta arrazoa, gorputza eta honek berekin dakarren guztia: bere mugimendua, bere indarra, bere formak, bere adierak, bere kontraesanak, bere luzapenak, bere hustasunak, bere espazioak, bere bakardadeak eta bere kolektibitateak, bere ezkutukoak eta bere agerikoak. Arte bizi horien baitan biltzen dira antzerkia, dantza, zirkua, clowna eta bestelako hainbat proposamen eszeniko. Adierazpide guzti hauek arte plastikoekin, ikus arteekin eta idatzizkoekin nahasten diren lekuan hausten dira oholtzaren mugak. Hauei guztiei lekua eman nahi die gorputzaren eremuak.

4**Soinua**

Soinuaren ezaugarririk ederrenetakoa mugarik behar ez izatea da, markorik eza. Soinua hor dago, gertatu egiten da eta soinu gertakarien aurrean, entzuteaz gain aditzea proposatzen dizugu, tentuz erreparatzea. Belarriek betazalik ez dute eta soinuak dira gugana etortzen direnak, arreta eskatzen digutenak. Musikaren soinu mugetatik haratago inguratzen gaituen hotsen oihan bat dugu arakatzeko. Soinuzko memoria, musika esperimentalak, ikerketa, soinu instalazioak, hotsen antropologia, soinuaren kultura eta pedagogia... hamaika entzuteko jaiok gara. Soinuaren izate desberdinen kontzientziak ikasi eta gure ingurua beste belarri batzuekin entzunez sortzeko aukera dugu.

Etorkizunerako osotasunean lerrokatu



ROGRAMAZIOA + PROIEKTUAK

HITZA

IRUDIA

GORPUTZA

SOINUA

Sormena eta transmisioa garatzeko lau eremuetan antolatzen diren proiektuetaz gain, zehar lerro gisa jorratzen ditugun kultur sustapena eta gizarteratze balioetan oinarritutako proiektuak ere baditugu.

Orain artean joratu ditugun proiektuek oinarri sendo bat ematen digute etorkizunean bide beretik jarraitzeko. Ez dira egun batetik bestera aitzen diren gertaera soilak, epe ertain-luzeko begiradarekin diseinatutako asmoak baizik. Ondorioz, etorkizunean denak lantzen jarraitzea da asmoa.

> Hitzaren Eskola

Idazlea ez da literaturatik soilik elikatzen, zinetik, artetik, musikatik ere edaten du, eta azken finean, bizitza bera du, bere osotasunean, bere heldu ezinean, lanerako ekai. Baina hitza du tresna, hizkuntza du lehengai, eta hizkuntza bera menperatu behar du, jolasean hasteko, buruan dabilkiona kontatzeko. Eta berdin bertsolariak, edo gidoigileak, baina baita esatariak edo itzultzaileak ere; kosta egiten zaigu maiz hauena sormen lantzat hartzea, ez da eta hain nabarmena, ezin uka ordea asko duela sormenetik, unean uneko beharrei erantzuteko modurik onena bilatzetik.

Beraz, hitza bera ardatzean jarrita egin nahi dugu eskola hau. Ez diziplina bat, bere tresna eta teknika espezifikoeekin, baizik eta hitza bera, bere ertz guztiekin, bere ahal izugarriarekin, bere izaera eta aukera guztiekin. Eta horretarako, hitza euren jardunaren oinarrian daukaten idazle, bertsolari, esatari, itzultzaile, gidoigile eta abarrak ekarriko ditugu eskolak ematera, hitzaren ahozko nahiz idatzizko alderdiak lantzeko, eta adierazpide bakoitzak besteak nola aberastu ditzakeen ikusteko, betiere osotasun baten bila: hitzaren jabe egitea belaunaldi berriak, hitza hartzeko bidea jartzea.

Hizkuntza da gure ardatza. Euskara, beraz. Eta hizkuntzaren lanketa kaleidoskopiko batekin sinistuta gaude aberatsago izango garela, tresna hobekak izango ditugula mundua gure hitzekin kontatzeko.



Helburuak

- Hitzaren lanketa integral bat eskaintzea belaunaldi berriei, praktikaren bidez.
- Hitzaren ahalaren jakitun egitea ikasleak, adibideak emanez, ikertuz, lanean jarritz.
- Hitza ardatz hartzen duten sormen adierazpide ezberdinak ekartzea sortzaile berriei, aditzeko eta aritzeko.
- Adierazpide guztiak gurutzatzen diren puntuan jartzea arreta: hitza.
- Hitzarekin lana egiten dutenekin harremanetan jartzea sortzaile berriak.
- Euskaldun osoak izateko bidean hitzaren jabe egiten erakustea.
- Mundua euskaraz kontatzen jarraitzeko tresnak ematea belaunaldi berriei.



Ezaugarri nagusiak

- Iraupena eta egutegia: 6 hilabeteko iraupena, irailtik martxora.
- Egitura: 6 irakasle; bakoitza hitzaren adierazpide batekoa, bakoitza hilabetez.

IÑIGO ARANBARRI

MADDI BARBER

HAIZEA BARCENILLA

ANDONI EGAÑA

XABIER ERKIZIA

ARANTXA ITURBE

- Taldea: 12-15 laguneko taldea izango da eskolak jasoko dituenak.
- Nori zuzenduta: 18 urtetik gorako euskaldunei, hitzaren lanketa sormenetik abiatu nahi duenari.



> Gure Mintzak

Azpeitian dauden hizkuntzen eta hizkeren grabazio funtsa eratzeko balizko egitasmoa da. Azpeitian hitz egiten diren hizkuntzen aniztasuna eta, jatorri ezberdinetako herritarren aniztasun kulturala ezagutarazteko proiektua da. Herritar hauek euskarara hurbiltzera gonbidatu nahi ditugu euren jatorrizko hizkuntzatik abiatuz.

Proiektua bera ordea tresna bat izatea nahiko genuke, jatorri ezberdinetako herritarrak ezagutzeko, sartzeko eta herriko dinamika ezberdinetan euren parte hartze aktiboa sustatzeko.

Azpeitia herrialde ezberdinetako herritarrok osatzen dugu. Jatorri ezberdinetakoa herritarrak geroz eta gehiago diren arren gure herriko ekintzetan euren presentzia ez da nabaritzen, ez dakigu ia ezer beraiei eta beraien jatorriari buruz, ez daukate espazio propiorik herrigintzako eragile moduan (nahiz eta eragile batzuk, Elkar-ekin Elkartea kasu, eurekin elkarlanean aritzen diren), eta ez daude saretuta. Ikusezinak dira. Azpeitia Herri Hezitzailea ekimenaren baitan 2018an ikastetxe, udal eta herrigintzako eragileekin burutu zen diagnostikoan, nabarmen hankamotz geratu zen balorea izan zen aniztasunarena. Azpeitia anitza dela geroz eta argiago daukagu, baina aniztasun hori kudeatzen oraindik ez dugu asmatzen.

Hor dago gakoa; nola bihurtu gure eguneroko ekintzak aniztasuna lantzeko tresna. Nola bihurtu ikusgarri herrian bizilagun ditugun jatorri ezberdinetako pertsonak. Nola aktibatu herritar hauek, herriko ekintzetan parte hartze aktikoa izatera. Nola bermatu Azpeitia inklusiboago bat.



Helburuak

- Azpeitian dauden hizkuntza eta hizkeren grabazio funtsa eratzea.
- Azpeitian bizi diren kultura ezberdinetako ezaugarri esanguratsuenen laginak jasotzea; kantak, kondairak, ipuinak, errezetak... ondoren bilduma bat osatzeko.
- Azpeitiko jatorri ezberdinetako pertsonen komunitate sarea sendotzea.
- Aniztasun mahaia eratzeko saiakera bat egitea.
- Azpeitiko herritarren elkarbizitza sustatzea, inklusioaren bitartez.
- Azpeitiko jatorri ezberdinetako pertsonen herriko ekintzetan parte hartze aktiboa sustatzea, bertako azpiegituren erabilpena bultzatuz.



Metodologia

Udala eta eragile ezberdinen laguntzaz, herrian errolatutako euskara ez beste jatorrizko edo familiako hizkuntzaren bat ezagutzen dutenen zentsua osatzen dihardugu. Euren intimitatea errespetatuz, egitasmoaren berri eman eta parte hartzeko aukera eskainiz. Aurrez aurreko elkarrizketak grabatuz, Azpeitian dauden hizkuntzen eta hizkeren grabazio funtsa eratzen ari gara. 2020. urtean 12 hizkuntzen funtsa osatuko dugu, eta urtez urte jatorri desberdinetako hizkuntzak gehituz joango gara.

Elkarrizketan, bere herrialdeko hizkuntzari buruzko galderak egiteaz gain, Euska Herrira nola eta zergatik etorri ziren, eta hemen aurkitu dutenaren inguruak ere galdetzen dizkiegu. Aldi berean, aurrez finkatutako testu komun bat ere ematen diegu hizkuntza-hizkera guztietan jaso dezagun.

Gainera hiztun bakoitzari bere ondareko edo sormeneko beste testuak (edota irudiak, dantza, artisau ohiturak edo bestelakorik badago) jasotzeko aukera eskaintzen diegu: dela kanta, dela poema, dela ipuin, elezahar, errezeta, pasadizo, ereserki, konjuro, edo zernahi. Folklorearen bai, baina folkloreaz haratagoko ondarea (batez ere hori) ere jasoa gera dadin. Adierazpen kultural hauek euskarara ekarri eta prozesuaren sozializazioa egiten lagunduko digun emaitza bat osatzea da asmoa (ipuin, errezeta, abesti, olerki...kultur aniztasun bilduma).

> DAPA

Bizi gaituen mundua irudi eta soinuen segida batekin kontaktzen digute batez ere, eta ezinbestekoa zaigu guk ere mundua, baita geure mundua ere, ikus-entzunezko narrazio batekin kontaktzea, geuretik, euskaraz, egunero egiten eta desegiten gaituen kultur sorkuntzan jarriz gure bizinahiaren epizentroa.

Euskal kultura eta kultur sortzaileei ikusgarritasuna eta hedapena emango dien sarera bideratutako ikus-entzunezko saio-bilduma osatzeko asmo sendoa da. Badakigu erronka handia dela, konplexua eta lanpetsua. Kontziente gara egun nekez aurkitu genezakeela zirrikiturik ikusentzunezko industrian nagusitzen diren erdal erraldioen artean horrelako produktuak bistartzeko, baina ezin geratuko gara saiakera serio bat egin gabe. Guk eta guretik, euskaraz eta euskaratik egin beharrekoa da eta berebiziko garrantzia duela konbentzita gaude.

Azpeititik Euskal Herrira begirako perspektibatik garatutako proiektua da, sortzaileen artean lurraldetasuna, generoa eta ibilbidea kontuan hartuta.

Edukia sormena da, baina trataera ere sortzailea da. Hasieratik, esperimentaziorako tarte egon da, arriskuak hartuz, eduki nahiz formetan. Ikus-entzunezko edukien forma estandarretatik harago joan, eta sarerako kalitatezko produktu berritzaile bat sortzen ari gara.



Helburuak

Iraupenari dagokionez, argi luzeak jarrita abiatzen den proiektua da, hainbat urtetan garatzeko proiektua; urtez urte espazio berriak, hedapena eta ikusgarritasuna irabazteko bokazioa duena.

Hizkuntzari dagokionez berriz, ikus-entzunezkoa osotasunean euskaraz ekoitzia da, hala, euskara sustatzea eta balioan jartzea ere izango ditu helburu. Salbuespen gisa, gerta liteke erdal hiztunak elkarrizketatzea; kasu horietan, hizketaldia azpigitulatu egiten dugu.

Euskal hiztun kulturzalea da xede talde nagusia; kultura kontsumitzen duen herritarra, edota euskal kulturaz interesa duena. Hori dela eta, zeresana sortu eta ikuslegoa finkatzea izan zen lehen sei-



hilekoaren beste helburuetako bat. Dena den, xede taldea zabaltea ere bada helburuetako bat, euskal hiztunen komunitate osoarengana iristeko.

Hurbiltasuna kultur eragile edo mugimendurekiko. Kultur mugimendua gertutik ezagutzen dugu: kultur mugimenduaren parte gara, beste eragile eta sortzaileekin saretuta gaude, konfiantza eta hartu emana dugu, eta, horrek, produktu propio, berezi eta kalitatezko bat egiteko posizio ezin hobea ematen digu.

Hedapenari dagokionez, atari propio bat sortu dugu, dapa.eus eta sare sozialetan kontuak ireki dira. Ataria ikusentzunezko pieza guztien biltegia da. Bestalde, hedapena eraginkorra izan dadin, euskal hedabideen artean aliatuak bilatu ditugu (Berria, Hamaika Telebista, Argia...). Hala, sustatzaile desberdinek euren erakusleihoetan hedatzen dituzte proiektuko edukiak

ENHIA
FRONTONARI / 475. BEH. EMPISA. 1000

16 | TESTURA

1000

[v](#) [t](#) [s](#)

15 | AMORANTE

1000

[v](#) [t](#) [s](#)

14 | GEHIENGOAREN HIRIA

1000

[v](#) [t](#) [s](#)

> Grafiaz Betea

Ikusizko Orden Berrian bizi gara arte teoriko batzuen ustez. Ezin da ukatu irudiz gainezka daudela gure eguneroko bizitzak, eta irudi bitartez komunikatzen garela geroz eta gehiago. Irudian bizi gara eta irudiak bizi gaitu. Argazki kamera bana daramagu aldean, eta argazkiz beteta daude gure telefono (ez hain) inteligenteak. Argazkiak jada ez dira albumetan gordetzen, telefonoen memorian galtzen dira... Paradoxa dirudi, baina gaur inoiz baino beharrezkoagoa (eta zailagoa) da irudi bat sortzea, eta zer esanik ez iruditeria bat sortzea. Garai eta leku bateko jendeari zer edo zer esango diguten irudiak sortzea da zaila, eta horregatik beharrezkoa. Irudiaren gainean hausnartzea ezinbesteko bihurtu zaigun bezala.

Irudia tresna potentea da, izugarri indartsua, eta irudiaren ahalaz gogoeta egitea tokatzen zaigu, baina baita irudiaren azalaz ere: nola egiten da irudi bat, nola eraikitzen, nola irakurtzen, zer ikusten dugu hor... Eta nola jartzen dira irudiak zirkulazioan, non galtzen dira, non pausatzen, non eusten diote denboraren joanari, nora joaten dira inork ikusten ez dituenean... Bi gauza diferente dira begiratzea eta ikustea. Batzuetan ez diegu begiratu ere egiten irudiei, besteetan begiratu gabe ere ikusi egiten ditugu. Eta mutur batetik besterako tarte hori da guk lana egiteko lekua. Eta irudiek ze funtzio betetzen duten pentsatzekoa.



‘Grafiaz betea’ era guztietako irudiak bilduko dituen aldizkaria da, berdin marrazki zein argazki, baina irudiaren gainean (edo azpian) gogoeta ere egin nahi du, irudiekin, irudiari buruz, eta hitzekin, irudiak erakusten digun munduari buruz, mundua erakusteko irudiak erabiltzeaz, mundua erakusteko erabiltzen diren irudiez. Guretzat garrantzia haundikoa da irudiari buruz idatzi duten hainbat eta hainbat artista, kritiko, filosofo, teorikoren ekarpenak euskaraz ematea, eta horretarako atal bat gorde nahi dugu zenbaki bakoitzean. Urtean bi zenbaki argitaratuko ditugu, ekainean eta abenduan, eta Irudiaren eremuko jardunaren memoria gisa ere funtziona dezake nolabait. Gure asmoa prozesu guztia eskuz egitea da; lan guztiak hartu eta teknika desberdinak erabiliz denak aldizkari bakarrean biltzea.



Helburuak

- Irudiaz eta iruditik aritzeko dinamika bat martxan jartzea.
- Irudiak biltzen dituen ezaugarrietaz hausnartzea (estetika, diseinua, konposaketa, begirada...).
- Norberaren ekarpenetik lan kolektiborako jauzia egitea.
- Eskuz eginiko objektua balioan jarri eta egungo gizarte digitalean duen presentzia hegakorra ezbaian jartzea.
- Ariketa kolektibo baten bitartez sortzaileen komunitatea saretzea.



> Oholtzaberri

Sarri entzun izan dugu Azpeitia betidanik herri antzerki zalea izan omen dela. Ordea, zaletasunak, zaindu eta jorratu ezean agortu egin ohi dira, egunero landu eta ureztatzen ez den baratza baten moduan. Zortez, gurean, arte eszenikoetako eta bereziki antzerkiaren inguruko elementu guztiak ditugu bertatik uzta ezin hobea lortu ahal izateko: lur emankorra dugu (kultur azpiegitura eta baliabideak), baratzezain ezin hobekak ditugu (antzezleak, konpainiak, eskolak, zuzendariak, gidoigileak...) eta eguraldi paregabea (kultur jardun osasuntsua). Beraz, lur hori landu, zaindu eta ureztatu dezagun, gero uzta emankorra jaso eta herriko azkoan partekatzeko.

Oholtzaberri egitasmoa euskarazko antzerkigintzaren jarduna indarberritu eta balioan jartzeko plan integral bat da. Horretarako, Euskal Herrian kultur espresio hauek jorratzen diharduten eragileak saretu, dinamizatu eta aurrera begirako kultur plan bat osatu nahi dugu arte eszenikoen alorreko iparrorratz gisa.

2015ean ekin genion epe luzeko proiektu honi. Lanaren eta denboraren poderioz hasiera hartan ezinezkoak ziren hainbat helburu lortu ditugu eta egun antzerkiaren jarduna osasun betean dugu Azpeitian. Ordea, oraindik badago zer hobetu, zer berritu, eta datozen urteetan erronka horiei heldu nahiko genieke gogoz.



Lan ildo nagusiak

Luze emango luke Oholtzaberri ekimen guztia azaltzeak, bera desberdinak labu-labur:

Antzerki Sormen Egonaldien programa. 2014tik Euskal Herriko ahalbideratzen dugu, euren obra sortzen laguntzeko baliabide ostaturia, dietak, estreinaldia egiteko aukerak, mediazio ekintzak...

Antzerki Sormen Laborategia. Antzerkizaletasuna sormenetik dinamizatzen duen iraupen luzeko antzerki tailerra.

Gaztetxo eta nerabeen antzerki tailerra. Alaitz Olaizola eta Xar ditugu. Antzerkia umetatik, bizi eta sortzeko aukera.

Lekua. Euskarazko antzerkigintzaren topalekua, arnagunea, baliabide dugu, Euskal Antzerkiaren Lekua. 2019an egin genuen lehen topalekua harreman sarea auspotzen jarraitu dugu distantzian bada ere, da



az, hona jardun oso horren baitan biltzen ditugun egitasmo

antzerki konpainiei sormen erresidentzia osoa egiteko aukera
e anitzak eskuragarri jarriaz (espazioak, baliabide teknikoak,
).

eta egitetik bizitzeko aukera zuzena. Amancay Gaztañagak

nti Agirrezabalek dinamizatzen dituzten gaztetxoek lau talde

bestokia, itsasargia izan nahi duen hitzordua proposatu nahi
aketa eta aurrera begira jarraitzea da asmoa. Pandemia tarteko
torren urtean topaketa berri bat egiteko.



> Arkupehotsak

Herriko kultur eskaintzan ohikoa zaigu kontzertu ederretaz gozatzea baina musika emari horri ere jaten eman behar zaio eta musika ideia berriek behar dute aupada. Bide horretatik, 2017an abian jarri genuen Arkupehotsak proiektua, Sanagustin kulturguneko arkupean atondutako oholtzan euskal musikaren alorrean sortzaile berriei eta musika ekimen berriei bide emateko plaza gisa.

Hainbat eta hainbat musikari pasa dira ordutik eta parte hartzea igotzen joan da urtez urte. Proiektu honek aukera eman die euren musika lau haizetara zabaldu eta bidean babes bat sentitzeko.

Horrela egiten jarraitu asmoz zabaldu berri dugu deialdi berria eta hasi dira musika proiektu berriak ate joka. Guk ateak zabaldu eta bozgorailua eskainiko diegu euren doinuei.

Heburuak

Musika sortzaile berriei nahiz garatze bidean dauden musika proiektu berriei plaza duin bat eskaintzea.

Herriko, eskualdeko eta oro har Euskal Herriko sortzaileen dinamika aktibatzea.

Euskarazko sorkuntzarako baliabideak jarri eta euskal musikari hedapena ematea.

Musika sortzaile berrien erreferentzia puntu bat izatea.

Inguruan ditugun sortzaileak balioan jarri eta euren jardunerako tresnak eskaintzea.



Ezaugarriak

- Deialdia. Funtzionatzeko modua deialdi bidezkoa izango da.
- Izen-emate epea irekia da, hau da, ez da epemugarik egongo. Baina hautaketan kontuan hartuko da izen-emate data.
- Parte hartzeko modua. Izen emate orria bete beharko da.
- Maiztasuna. Sanagustin kulturguneko programazioaren baitan modu jarraian izango dira kontzertuak.
- Kontzertuak. Asteburutan izango dira (ostiralean, larunbatean edo igandean) eta doako sarrera izango dute.



- Zabala. Euskal Herri osoko taldeen plaza izango da.
- Euskara. Abesten den hizkuntza edozein izanik ere euskarak lehentasuna izango du aukeratzera.
- Hautaketan kontuan izango dira gazteen proposamenak, proposamen berritzaileak, musika adierazpen anitzak eta parekidetasun irizpideak, besteak beste.
- Aukeratuak izango diren taldeei kontzertua emateko abagunea, ekipamendu osoa, afaria eta promozioa eskainiko dizkiegu.
- Talde bakoitzaren zuzeneko bideoa eta kontzertu bakoitzaren argazki albuma egingo ditugu.



> Errati

Norvegiak itzali ditu jada bere FM seinaleak: aurrerantzean irratia digitala izango da. Etorkizuna gaur da, eta prestatzen hasi beharra dago. Entzuleak bere intereseko edukiak bilatzen ditu orain sarean, nahi duenean entzuteko, osorik edo zatika; nahi duenarekin partekatzeko aukera ematen dio gainera. Ez dago urrutira joan beharrik: Azkoitiko Kontrako Eztarrixen bada Hankak lurrin izeneko saio bat, FM bidez entzun ezin dutenek, gehienek, sarean entzuten dutena. Gaur berdin dio bat Berlinen edo Londresen bizi den, Oaxacan edo Melbournen, badu euskarazko podcastak entzuteko aukera.

Edukien kalitatea da kontua, kontatzen duzun horrek sor dezakeen interesa, zure komunitateari zerbait esateko duzun ahalmena. Esaten duzunaren arabera zure komunitatea osatzen joateko aukera ematen du gainera, zabaltzen, egiten joatekoa. Eta hori, martxan jarri nahi den proiektu batentzat, berebiziko aukera da.

Soinuaren eremua da landu nahi duguna, bere osotasunean, ez musikara bakarrik mugatuta. Hori dela eta, soinu plataforma honek soinua bera izango du ardatz, esperimantazioa sustatu nahi du, gogoeta egitea soinuari buruz. Eta aldi berean sormen jardunaren ingurukoak jasotzeko balio behar du: erreportajeak, elkarrizketak, zuzeneko grabaketak, eta abar.

Beraz, gure soinu artxiboa irratia ere izango da, baina ez orain arte irratiaz ulertzen genuena, baizik eta irradi errari bat, gure kontuak errateko balioko diguna.

Edukiak

Errati soinu sorkuntza artikulatzeko plataforma da eta oraingoz Dinamoko soinuaren eremua modu fisikoan izan bitartean bertako jarduna nahiz dinamika sustatu ahal izateko aitzakia perfektua. Besteak beste honako jardunak biltzen ditu ekimen honek:

- Esperimantazioa. Soinu eta musika esperimantazio tailerrak zein esperientziak
- Soinu artxiboa. Kultur jardunak ematen dizkigun hainbat soinu dokumentu biltzea.
- Musika sormen egonaldiak. Sortzen ari diren proiektu berrien sormen egonaldiak eta bertatik gurean partekatu ditzaketen aurkezpenak.
- Zuzeneko grabaketak. Kontzertu, tailer eta bestelakoen soinu grabaketak.
- Podcast-ak. Beste proiektuetan dauden eta soinu izaera autonomoa izan dezaketen edukiak podcast moduan editatzea.
- Irrati formatuko edukiak. Elkarrizketak, erreportaiak, soinugrafiak...



Esperimentaziotik sortzen

Erratiren jarduna elikatzeko eta soinuaren eremuko jarduna aktibatu asmoz hasiak gara hainbat eduki eskaintzen. Adibidez, pasa den azaroaren 7an izan genuen Los Sara Fontánen tailerra eta kontzertua. Bertan, parte hartzaileek inprobisazio gidatuan oinarritutako kode berri bat adostu behar izan zuten lengoia musikal berean inprobisatuz aritzeko. Guztiz parte hartzailea izan zen eta herriko zein kanpoko musikariek norberak ekarritako instrumentua erabili zituzten sormen dinamika kolektibo batean parte hartzeko. Edozein instrumenturekin parte hartu ahal izan zen, norberaren musika jakituria maila edonolakoa izanik ere.

Tailerrak honako helburuak zituen:

- Inprobisazio gidatuaren esperientzia ezagutzea.
- Zuzeneko musika sorkuntza prozesu baten parte izatea.
- Dinamika kolektibo baten parte hartuz elkar entzun eta batera sortzea.
- Sortu, ikasi eta batik bat musikaz gozatzea.

> Urola erdiko trikitixa 60 eta 70eko hamarkadetan

Triki Giro Elkartearekin elkarlanean, 60 eta 70eko hamarkadan trikitixak eskualdean izandako eragina aztertzen duen dokumentazio lana egiten ari gara. Batetik, dokumental eder bat eta berrogehiren bat trikitilariren bideografiak plazaratuko ditugu gure eskualdeko trikitiaren garapena protagonizatu zutenen eskutik. Bestetik, azterketa soziologikoa eta hainbat datu interesgarriren biltzen dituen liburu mardula argitaratuko dugu.

Helburuak

Urola Erdiko Trikitixak euskal iruditeria kolektiboari egindako ekarpena balioan jartzea. Horretarako, Urola erdiko trikitixak 60 eta 70eko hamarkadetan izandako bilakaera aztertzen duen ikus-entzunezko dokumental bat osatu nahi da. Dokumentala bere horretan ulertzeko, ordea, aurrekariak hartu behar dira kontutan.

Urola Erdia beti izan da trikitizaletasun handiko bailara. Trikitixaren sehaska bezala ere ezagutzen den bailara honetan sortu dira gerra aurreko eta gerra osteko trikitilari handienetako asko. Horretaz jakitun, bailarako (Azkoitia, Azpeitia, Beizama eta Errezilgo) 40 bat trikitizaleek, Urola Erdiko TrikiGiro Kultur Elkartea sortu genuen bi helbururekin: batetik Urola Erdiko trikitixa zaletasuna sustatzea, eta bestetik, urteetan zehar sortu den kultur aberastasuna bildu eta ondorengo belaunaldiei transmititzea.

Azken helburu hori erdiesteko, Urola Erdiko trikitilarien ekoiztako kultur aberastasuna modu sistematiko batean biltzeko beharra ikusi genuen. Horretarako, Euskal Herriko Trikitixa Elkartearekin lankidetzan elkarrizketa desberdinen datu base bat osatzea hitzartu genuen.

Dokumentalaz

Dokumental hau, Datu Base horretan sozializatzeko estrategiaren baitan kokatzen da. Azken batean, Dokumental horretan, trikitixa mugimenduaren bueltan ibili diren trikitilariak elkarrizketatzeaz gain, gaian adituak diren pertsonak elkarrizketatzen ari gara. Bestetik, dokumentalaren gidoia 6 partetan banatzen da.

- Lehen zatia: 70eko hamarkada amaieran, Urola erdiko trikitixa nazio-sinbolotzat kontsideratu eta euskal kulturaren aldeko jaialdietan goi mailako kultur sortzaileen ondoan dagoela frogatzen da. Ildo horretatik infernuko hauspoa izatetik nazio sinbolo izatera nola igarotzen den aztertzen da.
- Bigarren zatia: akordeoi diatonikoa zer den eta Euskal Herrira noiz eta nondik datorren azaltzen da.
- Hirugarren zatia: Trikitiari Euskal Herrian emandako ongi etorria azaltzen da, horretarako hiru agente



kontutan hartuz: euskal komunitatea (landa-hirigunea talka), eliza eta abertzaletasuna. Hori guztia Frankismo aurrekos eta osteko garaietan

- Laugarren zatia: 60ko hamarkadako abertzaletasun berriaren formulazioa eta horrek euskal berpizkundean izandako eragina aztertuko da. Arantzazutik Belodromorako bidaia horretan, Loiola Irratitik eta Donostiako Trinitate plazatik igaroz, trikitixaren nazionalizazio prozesua aztertzen da..
- Bostgarren atala: 60 eta 70eko hamarkadetan protagonista izan ziren trikitilarien bizipenak aztertzen dira (ikasketa prozesua, txapelketa, dantza lotua...)
- Seigarren atala: Ondorio gisa, Urola erdiko trikitixak euskal iruditeria kolektiboari egindako ekarpena oso garrantzitsua dela azpimarratzen da eta trikitilari horiei, merezi duten prestigioa eta lekua eman behar zaiela azpimarratzen da.

> Kultur bonoa

Programazio oparoarekin, sarreren prezio politika egokiaz eta sustapen kanpainen laguntzez kultur ekitaldietara joateko joerak gora egin du nabarmen azken hamarkadan. Lan horretan ordea, elementu gakoa Kultur Bonoa izan da, herriko kulturzaleei eskaintza berezia eskuragai jarri eta ikuslegoarekiko harremana fidelizatzeko aukerak ireki dizkiguna.

Kulturarekin hazi, hezi eta goza ahal izatea bultzatzeko asmoz atera dugu Kultur Bonoa zazpi urtez jarraian. Azken urteetan agortu egin dira, publiko gazte berrien sustapena ere eragin du eta aurrera begira ildo hori hobetzen jarraitzeko ilusioa ematen digu.

Bonoak Kulturaz kooperatibak antolatutako ekitaldietarako balio du. Kooperatibaren oinarriari eutsiz, ikuskizunen aniztasunari erreparatuko diogu, guztion gustuko gauzak ekartzen saiatu, eta, aniztasuna, adina eta orekak kontuan hartuta.

Ekimen honetarako Azpeitiko Udalak laguntza bat bideratzen du, ahalmen ekonomiko urriagoa dutenentzako deskontua egin ahal izateko.



Eskaintza

Kultur Bonoak, Kulturazek antolatutako ekitaldietan, honako abantailak eskaintzen ditu:

Sanagustin kulturguneko eta Soreasu Antzokiko ekitaldietan:

- 10 kontzertu
- 6 Antzerki/Dantza
- Umeentzako 6 ikuskizun (heldu bat + ume bat).

Txartel formatua izango du Kultur Bonoak: txartelek kode bat eramango dute. Horrela, jabeek www.kulturaz.eus webgunean sartuta txartelaren erabileraren berri jakin ahalko dute. Web orri berean, agenda atalean, bonoa erabili ahal den ekitaldiek ikur bat izango dute, bono jabeentzako jakingarri gisa.



Kultur Bonoa 65€tan izango da salgai helduentzat. Langabetuek, jubilatuek nahiz Gazte Txartela dutenek, berriz, 33€tan erosi ahal izango dute. Salgai jarriko den bono kopurua mugatua izango da. Txartela transferigarria da, eta beharrezkoa izango da ekitaldietara eramatea.

Gainera, azken urteotan kultur kontsumoko publiko berriak sortzeko estrategiak diseinatzen dihardugu. Kulturak etorkizunik izango badu ezinbestekoa da dugun ikuslegoa fidelizatzea eta belaunaldi berriek kulturara duten atxikimendua areagotzea.

Jardun honetan Jaurlearitzako kultur saileko estrategiekin lerrokatuta gaude. Pasa den urrian, adibidez, topaketa batzuetan parte hartu genuen hizlari gisa.



> Ehuntzea

Haseratik gure ereduaren eta lan moldeen gako nabarmenetako bat elkarlana da. Gure inguruaren errealtatea osatzen duten kultur eta gizarte eragile desberdinekin harremanetan jarri, helburuak partekatu eta lankidetzan bidea jorratzea. Inoiz baino indibidualistagoa den gizarte honetan, elkarren beharra inoiz baino nabarmenagoa da. Pixkanaka-pixkanaka ehuntzen goazen elkarlan sare horrek ezinbesteko garrantzia du proiektuen bilakaeran, emaitza hobek emateaz gain ekosistema aberatsago bat osatzen baitu. Azpeitiko Kultur Mahaia bera osatzean egin genuen oinarritzko saretze lan hori izan zen proiektu guztiaren ezinbesteko pausua eta ariketa horrekin jarraitu dugu, parte hartze prozesu etengabea bihurtuz. Haseran herrian osatu genuen sarea, ondoren kooperatibarekin eskualdeko nahiz Euskal Herri osoko hainbat eta hainbat eragilerengana barreiatu da.

Sakondu nahi dugu sare horren konplexutasunean eta horretarako bitartekoak jartzen ari gara, parte hartzea ahal den neurrian sistematizatuz eta sare horretako eragileen arteko harremanen gurutzaketa erraztuz. Inurri lana da, harremanetan oinarritzen dena eta aurten ere inbertsio handia egin dugu giza baliabideetan alderdi hori jorratzeko. Elkarlan sare bat ehuntzeak esfortzu handia eskatzen du eta are gehiago sare hori zaindu eta mantentzeak.

Ez da eikintza konkretu soil bat, urte osora hedatzen den jarduera eta jarrera bat baizik. Egun batetako zaparradak baino gehiago bustitzen baitu eguneroko xirimiriak.





Ez gara geldirik egotekoak eta eskualdean nahiz Euskal Herriko hainbat txokotan gure eredua partekatuz eta aberastuz jarraitu dugu. 2019a urte emankorra izan da alde horretatik eta kultur nahiz gizarte eragileekin harremanetan inoiz baina gehiago sakondu dugu. Elkarlana sustatzea, elkarrengadik ikastea eta harreman sarea zaintzea ezinbestekoak dira gure proiektua hobetzen eta aberasten jarraitzeko.

Datozen urteetara begira lur sail handia dugu ereiteko gero sare horren babesa eta elkarlana jaso nahi bada. Herri desberdinetan sortzen ari diren proiektu interesgarriak, Hendaian laster irekiko den Borderline Fabrika, Lekeitioko Arropaineko Arragua, Arabako Azala proiektua eta Sala Baratza, Artium museoa, Durangon lantzen ari diren proiektu berria...hainbat eta hainbat ari mutur interesgarri geure sarea josten segitzeko.



> Mediazioa eta sentsibilizazioa

Zentzumenen gozagarri izateaz gain kulturak baditu beste hainbat balio, balore eta medio. Badu zentzu kritikoa lantzeko gaitasuna, eztabaidagaiak beste modu batetan lantzeko giltza, gizarteko problematiketara gerturatzeko ahalmena. Bada, kultur edukiak eta sortzaileak herriko hainbat kolektiborekin harremanetan ditugu esperientzia aberasgarri anitzak sortuaz.

Kultur mediazioek honako helburuak dituzte:

- Komunikazioa erraztea.
- Elkarren arteko ulermena eta elkarrizketa sustatzea.
- Kohesio soziala lortzea.
- Aurreiritziak gainditzen saiatzea eta jarrera aldaketak bideratzea.
- Kulturaren bitartez gizartearen aldaketak sustatzea.

Bestetik, sentsibilizazioaren bitartez ohikoak ez diren kultura publikoetara gerturaten saiatzen gara. eureak ez badoaz kulturarengana, kultura eramaten dugu eurengana. Modu horretan kulturak herritar oren bizitzetan zatitxo bat bada ere izan dezan saiatzen gara.





> Kultur Zubiak

Herrian eta eskualdean badira munduko herrialde txiroenetako herritarrekin elkarlanean diarduten Gobernu Kanpoko Erakundeak. Uste dugu bada, elkarre bakoitzaren dinamikak errespetatuz eta egiten duten lana balioan jarri asmoz, kooperatibak bere aletxoak jarri nahi izaten du ahal den neurrian lagunduz. Horretarako, eskuartean ditugun kultur tresnetaz baliatzen gara heuren lanari ahotsa eman eta elkarlanean helburu zehatzak lortzen lagunduz.

Kultur zubiak proiektuaren helburuak honakoak dira:

- Munduko herrialde behartsuenetan dauden problematikak gizarteratzea.
- Bertako jende, bizimodu eta kulturara gerturaketa bat egitea.
- GKE hauen lana balioan jarri eta gizarteratzea.
- Kooperatibaren izaera soziala kontuan izanik ahal dugun neurrian heuren proiektuei ekarpenen bat egitea.

Urteotan piskanaka egin ditugu lanketa hauek eta argi dugu aurrerantzean ere elkartasun begirada hori sakontzen eta lantzen jarraitu behar dugula.





Sahara

isiltasunaren ahotsak



Fitxa artistiko eta tekniko

Zuzendaria

Joserra Fachada

Aktoreak

Junkal Perez

Daniel Irujo

Kondu Iartza

Ane Iñiz

Anabel Heino

Jesus Mari Presa

Esther Gampendar

Mirenna Egizabal

Miren Zaldua

Josune Zuloaga

Atrezzoak

Kukula antzerki eta dantza

Iraupena

30 minutu

Sinopsia

Udaro datoz haur Sahararra herri horrekiko dugun errefugeoan. Joon nahi izan dugu: zergatik kanpamenduetan? Nola bizirik berri izateko, liburuetara joan gaituz entzun,..... baina zuzeneko Guretzatko liburua, 'Egizabal'...

> Ekimen osagarriak

Urte guzti hauetan zehar kultur dinamika hauspotu eta elikatzeko hainbat eta hainbat ekimen sustatu ditugu kooperatibatik. Herriko eragileekin lankidetzan bideratutako ekimen hauek ezinbestekoak eta garrantzitsuak izan dira kutur zaletasuna bizirik mantentzeko eta sortzaile komunitateari hegoak emateko.

Laboaldia



Mikel Laboaren unibertso poetikoa bere osotasunean erakustea izan zen gure asmoa, baina ez omenaldia egiteko bakarrik, ez bere lanaren alderdi guztiak ezagutzera emateko soilik, baizik eta sortzaile berriei ateak irekitzeko, sortzeko grina kutsatzeko, mundua nork bere erara eman dezan laguntzeko. Egitarau anitza eta parte hartzailea osatu genuen, ederra izan zen.

Annapurna II_86



Erronka handia izan zen esku artean izan genuena, lanari nahiz arlo ekonomikoari zegokionez. Paradisu Zinema Azpeitiko Zineklubak eta kooperatibak egin behar genuen elkarrekin. Proiektuak bi zati zituen: batetik, 1986an mendizaleek grabatu zuten dokumentala berreskuratu eta digitalizatzea; bestetik, abentura hura nola abiatu zen eta nola izan zen posible azaltzeko bigarren dokumentala egitea. Sorkuntza eta transmisioa bete-betean lantzeko espedizioa!

2016-2019 sormen dinamika



Sormenaren alorretik pausu estrategiko berri bat lantzeko 2016an habiatu genuen parte hartze prozesuaren baitan dinamika polita jarri genuen herriko kultur eragileok. Prozesua modu praktikoan landu eta 2019an Dinamo Sormen Gunea ireki bitartean Azpeitiko Kultur Mahaiak eta Kooperatibak ekimen sorta luzea gauzatu genuen. Tailerrak, proiektzioak, mahai inguruak, grabaketak...denetik eta denentzat.

Erakusketak



Ia hamar urtetan ehundik gora erakusketa eskaini dizkigute Sanagustin kulturgunearen ormek. Makina bat norbanako sortzailek eta eragilek izan dute euren sormena eta aldarria herritarren aurrean agertzeko aukera. Egunero irekita izan dugun erakusleihu zabala margolan, argazki, idatzi eta bestelako espresio moldeen abaroa izan da eta aurrerantzean ere horrela izaten jarraitzea nahiko genuke.

Sorkuntza Beketan lankidetzaz



2016an Azpeitiko Udalak eta Azpeitiko Kultur Mahaiak abian jarri zituztenetik Sorkuntza Bekak kultur jardunaren emariari babesa emateko tresna garrantzitsuak izan dira. Kooperatibatik hasieratik babestu dugu ekimen hau elkarlanaren bitartez, eta urteroko deialdia aurrera ateratzen lagundu izan dugu (epaimahaian, proiektuen jarraipenean, emaitzak herriratzeko aukerak eskainiz...).

Gaztelekukoekin hainbat ekimen



Begirada etorkizunean jarria dugunez datozen belaunaldiak zaintzea dagokigu, gure gazteak kulturara erakartzea. Horregatik, aspalditik gaztelekuko lantaldearekin harreman zuzena dugu eta esku artean dugun aukera bakoitza probesten dugu eurei kultur esperientzia desberdinak eskaintzeko. Argazki lantegiak, rap eta inprobisazio tailerrak, mural pintaketa saioak eta bestelako hainbat ekimen burutu ditugu azken urteotan.

> Aurrerantzean ere modu berdinean ekimen osagarriak sustatuz jarraitu asmo dugu herriaren kultur dinamika osasuntsu eta bizi-bizirik mantendu asmoz.

Zinea

Zinearekiko apustu sendoa egingo dugu. Paradisu Zinema Azpeitiko zine klubarekin elkarlanean osatzen dugu eta osatuko dugu datozen urteetan zine programazioa. Horrela herriari zerbitzu egokia emateaz gain Euskal Herrian ekoiztako film guzti guztiak ekarriko ditugu eta zine independenteari lehio handi bat irekiko zaio guztiarekin zine programazio eder bat eskaintzeko Azpeitiko herriari.

Zine lantalde hau guztiz irekia da eta nahi duen orok parte hartu dezake bertan. Euskal zinema eta zine independenteaz gain karteleran dauden estreinaldi onenak ekarriko ditugu Azpeitira. Dudarik gabe lan honetan zer esan handia izango du kooperatibako langile finkoa den Pilar Unanuek. Urte askotako esperientzia eta eskarmentua du eta hurrengo urteetan ere bere jakinduriaz baliatuko gara zine programazioa osatzerakoan.

Guzti honetaz gain herriko eragile guztien beharrak beteaz osatuko dugu zine programa: Erabaki produkzioak, Lagun onak MB (mendiari lotutako 4/6 pelikula edo dokumental eskeiniak urtero), Txolarte, Elkar-ekin, Parekidetasun saila / Basandereak, Azpeitiko Argazki Elkartea, Soka-haitz, GKS, Urolako Napar Zuztarrak, eta beste 30 bat eragilerekin batera osatu da azken lau urtetako programazioa eta aurrerantzean ere beraiekin eta beste herriko eragile askorekin batera osatuko da.

Tinko programazioarekin ere jarraituko da eta hezkuntza arlotik egon litezken bestelako beharrak beteko ditugu.



Zinea zinema aretotik ateratzea izango da gure beste apustua. Zinematik at!! ekimenaren barne, zinea herriko hainbat bazterretara atera nahi dugu. Horrela, Urrestilla, Sanjuandegi, Loiola, Nuarbe, edo beste agertoki batzuetara aterako da zinea.

San Martin egoitzarekin dugun lotura probestuko dugu bertan ere zinea eskeintzeko.

Asko hobetu da azken urteetan zinea botatzeko teknologia: DCPak, antena parabolika, ISM sistema, etab. Teknika guztiak barneratu ditugu eta inbertsioak egin ere bai erraztasun handiagoa izateko. Datozen urteetan ere aukera horien zain izango gara (gorrentzako zinema eskaintza, bateraketak,..).

Beraz, zinea kultur proiektuaren barne kokatuta dagoenez bestelako kultur dinamikek duten eredu eta metodologia bera izango du. Herritarrek antolatuko dute ein handi batean herriko zine programazioa eta txoko orotara eramango dugu zinea.



Komunikazioa



Komunikazio baliabide handiak ditu Kooperatibak. 9 urte hauetan barne eta kanpo komunikazioa izan da gure ardurarik nagusienetako bat eta komunikazio arloan orotara 310.000 euroko inberstioa burutu dugu.

Horrela, hainbat komunikazio enpresa edo eragilek dituzten bitartekoak ditugu eta urtero urtero apustua indartuz goaz. Hemen balibide horietako batzuk:

- 2 webgune: kulturaz.eus eta dinamoa.eus (Azpeitiko Kultur Mahaia eta Sanagustinkulturgunea.net web guneak sarean daude baina ez dute aktibitatearik guztiz zaharkituak geratu zirelako). Kulturaz.eus atariak jasotzen duen bixita kopurua handia da kulturaz aritzen den atari batentzako.
- Sare sozialak: Facebook, Twitter, Instagram, Messenger, WeChat, QQ,...Hauetan guztietan hainbat eta hainbat jarraitzaile dauzkagu.
- YouTube kanala propioa (ikusentzunezko hainbat eta hainbat saio eskaintzen ditugu: DAPA, ekitaldien bideoak, sormen prozesuak, AKMko taldeei promozio txandak edo erreportai laburrak,...)
- Flickr: guztira 10.000 argazki baino gehiago eta 1.000.000 bat bixitatik gora.
- Sarrera erosketak online. Sarrera erosketak eta itzulketak modu erosoan kudeatzeko aukera. Entradium plataforma erabiltzen dugu horretarako. Udalarekin batera ere Antzerki Topaketen sarrera erosketak online gure aplikazioaren bidez egiten da.
- Streaming bidez edozein ekitaldi zuzenean sarean eskaintzeko bitartekoak eta gaitasuna.
- Kulturaz aplikazioa. Kultur agenda, zinea, kultur bonoaren jabeek txartelaren erabilera kopurua ikusteko prestatua... (jeitsi Kulturaz app aplikazioa (play storen edo app storen)
- Dashboard aplikazioa behin-behinean ezarrita dugu. Hurrengo urterako osatua izango dugu.
- Eta modu desberdin batean komunikazioa lantzeko beste zenbait bitarteko.



2020a urtea baliatu dugu komunikazioaren gainean hausnarketa sakon bat egiteko. Hausnarketa oraindik guztiz amaitu gabe badago ere, kontu ugari ditugu jada egiteko. Ikaragarritzko potentziala dugu komunikazio arloan, barne komunikazioa indartu nahi da datozen 5 urteetan eta kanpo komunikazioari bestelako aldaketa bat eman ikusentzunezko arloan dugun indarra probesteko.

Proiektu hau martxan jarri zenetik, 2006tik alegia, barne komunikazioa gakoetako bat izan da. Orain ongi kokatuta gaude, barne buletina 700-900bat bazkideri irsiten zaie hamabostean behin, ekarpenak, iradokizunak, edo eta edozer galdera egiteko aukera zabalik dute uneoro. Gainera, bazkide ez direnek harpidedunen txokoa dute, astero informazioa eskuratzen dute, eta beren ekarpenak ere bazkideen modu berean tratatzen dira. Beraz, esan dezakegu, egun dugun komunikazio dinamikarekin herriari guztiz konektatuta gaudela.

Herritik kanpo ere urtez-urte gure komunikazio ahalmena goraka doa. Euskal komunikabide nagusienetan dugun presentzia handia da (gehigi aukeran). EITB, Hamaika TB, Berria, DV, Gara / Naiz, Noticias de Gipuzkoa, ...eskaera asko ditugu beraien edukietan parte hartzeko baina nahiago dugu apal jokatu eta tarteka soilik agertzea.

Lau lagunez osatutako ikusentzunezko komunikazio lantaldea dugu eta Iker Trebiño aditua dugu aholkulari gisa asteroko lan saioetan..Datozen urteetan Kulturaz TB plataforma digitala jarri nahi dugu martxan berrikuntza nagusi bezala eta ikusentzunezko arloan herrian azken bi urteetan izan dugun bilakaera AKMko talde zein norbanakoekin eta bestelako eragileekin guztiz herriratu nahi dugu. Ordea, komunikazio arloaren garapen prozesu garrantzitsu hau bere osotasunean Azpeitiko Udalarari azladu nahi diogu. Dugun ahalmena Azpeitiko Udalarekin konpartitu nahi dugu eta datozen urteetan estrategia amankomun bat plazaratu. Beraz, 2020an barne hausnarketarekin amaitu, 2021an Azpeitiako Udalarekin konpartitu eta denok batera komunikazio proiektu indartsu bat aurrera ateratzea nahiko genuke 2021-2024 tartean.

Ikustekoa izango da!!

Laburpena eta ondorioak

- ✓ 2006an gauzatzen hasi zen proiektu honek, hamahiru urte hauetan izan duen hazkundera jarraitua izan da, beti ere bere ereduaren baitan, parte hartzea eta elkarlana eta autonomiaren arteko oreka mantenduz, jasangarritasuna bermatuz, eta euskal kultur sustapena modu integralean lantzeko helburuarekin. Kultumetria azterketak zioen bezala, “hazi egin dira baina beti ere ereduaren baitan, gizarte oso baten elkarlanari erantzuna emanez eta egun euskal kulturak behar beharrezkoa duen proiektu berritzaile eta eredu propio bat plazaratuz”.
- ✓ Datozen urteetan hazkunde horri jarraituz euskal kultura modu integralean landuko da, sormena, transmisioa, ikusgarritasuna eta euskal kulturaren kontsumoa bultzatuz eta indartuz. Horretarako elkarlanean landutako urteko programazio aberats bat eskainiz eta berariazko publikoa identifikatuz, estrategia berritzaileak azaleratuz, gizartearekin konexioan sakonduz, horretarako prestatu diren proiektu eta egitasmoekin.
- ✓ Honek guztiak, Azpeitia, eskualdea eta Gipuzkoak ez ezik euskal kultur jarduerari bultzada ematen jarraitzeko eta bide batez proiektu hau eredugarri izaten jarraitzeko balioko du.
- ✓ Azken urteetan burututako ikerketa, azterketa eta parte hartze prozesu desberdinek markatu dute kultur mugimendu indartsu honen norabidea. Aurrerantzean ere parte hartze prozesuen dinamikarekin jarraituko dugu, parte hartzea ahalik eta gehien sistematizatzeko ahaleginak eginez eta beste prozesu berri eta berritzaileak zabalduz.
- ✓ Azpeitiko Kultur Mahaiaren tresna nagusia da Sanagustin Azpeitiko Kulturgunea Koop. Elk-a. AKMan lantzen eta adosten dira gero Kooperatibak aurrera eramango dituen ildo eta estrategi guztiak. Horrela izan zen 2010an Sanagustin kulturgunerako lehiaketa aurkezteko aukerak eta estrategiak landu zituenean, horrela izan zen 2012an ere Sanagustin kulturgunea osatzerakoan, 2013an kooperatibaren bazkide eta boto eskubidea eta egitura onartzerakoan, 2013an bertan sormena eta belaunaldi ezberdinen transmisio lanak eta ildoak jartzerakoan, 2014an Soreasuko Antzokiaren kudeaketa lehiaketara aurkezterakoan, 2015ean Azpeitiko Kulturaren Argazkia eta Kultumetria egiterakoan, 2016an Azpeitiko Udalak Soreasu sormen gunea parte hartze proposamena AKMri egin zionean, 2017an AKMko taldeei laguntza desberdinak ematen hasi ginenean, 2018an prozesua bukatu eta Dinamoia eraikitzen hasterakoan, 2019an AKMko talde guztiekin beharren diagnosi bat egin genuenean ... eta egunero egunero talde zein norbanakoen beharretara bidaeratuta gaude AKMren lanabes nagusia gara eta. Kooperatibak eguneroko lanean dihardu baina AKM da bere egitekoetan bideorria adierazten diona.

- ✓ Kultur dinamika indartsu honetan jarraitu nahi diogu. Urte oso gogorra izaten ari da 2020a (kulturan eta beste hainbat arlotan) baina guk lanean gogor jarraitzen dugu dinamika eten gabe. Covid 19a dela eta Euskal Herrian bere osotasunean kultur jarduerarekin jarraitzen duen bakarrenetakoak gara. Lan ikaragarria izaten ari da ekimen edo proposamen bakoitza aurrera ateratzeko hiru edo lau aldiz gehiago kostatzen delako. Baina neurri guztiak zorrotz betearaziz Azpeitiko kultur dinamika ahalik eta indartsuen mantentzeko egiten ari garen ahalegin hori fruituak ematen ari da, eta euskal panoraman argi izpi bat bezala ikusten gaituzte.
- ✓ Txostenean agertzen dugun bezala gure proiektuaren berritasuna maila esanguratsua da eta horrela izango da aurrerantzean ere. Sortzez, proiektua berritzailea da 2006an abiatu zenetik eta berritzaileak izaten jarraituko dugu. Aurten ere gure berritzailetasun horrek bermatu dizkigu egin ditugun ekitaldi, emanaldi, eta sormen eta transmisio proiektu guztiak. Berrikuntza ugari erabili ditu (teknika berriak, digitaltasuna, proposamen berri eta berritzaileak Euskal Herri mailan,) eta oraindik eta berrikuntza gehiago egingo ditugu datozen urteetan bai edukietan eta baita ere eremuan (bere ildo nagusia aldatu gabe, ordea, indartzeko asmoarekin).
- ✓ 2021ean Kooperatibaren III Garapen Fasea inplantatzen hasiko gara. Alde batetik inpaktoari dagokion kanpo azterketa berria bat egiten hasiak gara (2021an amaituko da). Gure proiektuak herrian izan duen inpakto soziala eta ekonomikoa aztertuko da. Horrez gain proiektuak herrian eta euskal kultur komunitatean izan duen inpaktu kulturala ere aztertuko dute. Kanpoko enpresa batek egingo duen azterketa honek baldintzatuko ditu (emaitzen arabera betiere) datozen urteetan proiektu honen hobekuntza ildoak.
 - ➔ Txostenean askotan aipatu den bezala herriko kultur eragile gehienekin dugu harremanak finkatuta baita AKMan ez dauden talde eta norbanako sortzailerekin ere. Azken hauetako gehienak kooperatibako bazkideak dira gainera. Kultur eragileez gain herriko ia eragile guztiekin ditugu harremanak eta hor gaude beti beraien beharrak asetzeko. Gure ereduaren baitan kokatzen da herrigintza formula hau.
 - ➔ Aurrera begira datozen urteetan kooperatiba guztiz herriratzeko beste fase batean murgilduko gara eta bazkidetza kanpaina berri bat martxan jarriko dugu. Kooperatibaren bazkidetza gutxienez herritarren %10 izatea aurreikusten da. Herriarena da kooperatiba eta aukera eman behar diegu herritarrei (izan ala ez kulturzale edo sortzaile) proiektu honetan parte hartzeko.

Bi ildo nagusi izango ditu Kooperatibaren Garapenerako III fase honek.

✓ Ez dugu nahi gure herriko kultur jarduera oparoak geldiunerik izan dezan eta datozen urteetako ere kultur programazio aberats eta orekatu bat lotzen hasiak gara. Sorpresa ugari izango dira baina beti ere gure ereduari jarraituz programatu dugu. Euskal kultura sustatzeko eta sormena eta transmisioa bultzatzeko 20 proiektu edo ekimen aurkeztu ditugu txosten honetan, dimentsio oso desberdinetakoak baina ez dugu nahi batzuk edo besteak euren neurriagaitik baztertzea. Guztiak dira garrantzitsuak guretzat. Hurrengo urteetan ere aterako ditugu proiektu edo ekimen berritzaileak beti ere kulturzale edo herritarren eskaerei jarraituz edo herriko kultur dinamika dinamizatzeko intentzioarekin. Hori da gure balio erantsia, gizartearekin konpartitu, parte hartzea bultzatu eta dinamizatu eta euskal kultura merezi duen planoan ipini.

✓ Euskara da gure elementu diferentziala. Euskarazko kultura lantzen eta sustatzen dugu txosten honetan askotan adierazi dugun moduan eta euskara da gure kudeaketa, komunikazio eta kooperatibako egitura guztietan erabiltzen den hizkuntza. Datozen urteetan Elegunekin bat eginik BIKAIN zertifikatua aterako dugu horretarako baldintza guztiak betetzen ditugu eta. Orain arte bezala herriko euskararen alde dabilzan eragile guztiekin elkarlanean jarraituko dugu eta berriren bat sortzen bada adi egongo gara elkarlana bultzatzeko.

✓ Guzti hau aurrera ateratzeko aurrekontu garrantzitsu bat daukagu. Finantziario propioa izan dugu 9 urte hauetan ikur eta hurrengoetan ere horrela izango da. Azken urte hauetan oso ondo kokatu gara Euskal Herriko kultur eragile eta administrazio nagusienetan eta beharrezko babesa jasotzea lortu dugu. Ustegabeko handiak jasotzen ari gara:

→ 2019/2020an Europako Batasunetik EAera bideratzen diren diru laguntza garrantzitsuetako bat jaso dugu gure lan egiteko modua eta dugun ereduarengatik. CREADIS 3 laguntza edo PRAKTIKA EGOKIAK laguntza. EAEn bi elkartek jaso ohi dute urtero. Gure proiektua: AZPEITIA: BERRIKUNTZA SOZIALERAKO DINAMOA da eta EJtik etorri zitzaigun berau bideratzeko aukera.

→ Azken urteetan (2018tik) publiko berriak sustatzeko diru laguntza jaso dugu. Puntuaziorik onena lortu dugu azken bi urteetan.

→ SORGUNE: 2020an lehenengo aldiz. Puntuaziorik onena lortu dugu..

→ BITARTEZ: 5. eta 4. izan gara azken bi urteetan.

Eta honi guztiari GFAk eta EJak bestela kultur eta euskara jardueragaitik ematen dizkigun dirulaguntzak gehitu behar zaizkio. Beraz, dirulaguntzen arloan azken urte urteak oparoak izan ditugu eta aurrera begira ere horrela izango dira, hauetako batzuk 2 edo 3 urtekoak dira eta.

✓ Horrez gain, zorionez urte haseratik 2 eta 3 urterako babesle berriak lortu eta lotu ditugu eta aurretik genietuenen babesa ere mantentzen dugu (horietako baten batzuk diru kopurua jeistea aurreikusten badugu ere), finantziario sare handia osatu dugu urteotan eta beraz, autofinantziario mailari eusteko modua ere izango dugula dirudi (ostalaritza guneak nabarmen bera egingo badu ere bestelako zerbitzuetan, ikusentzunezkoak kasu, lan berri asko sortu zaizkigu) eta beti bezala zerbitzu denetatik ateratzen duguna kulturean inbertitzen dugu. Datozen urteetan ekonomia ere aldatzen joango denez, horietako zerbitzu batzuk (ikusentzunezkoa, zerbitzu tekniko estrukturala, aholkularitza) aldaketak jasango dituzte.

✓ Azpeitia eta berrikuntza bete-betean lotzen dituen egitasmo integrala dugu esku artean. Berrikuntza soziala bultzatzen duen eredu bat, herriko eragileekin bat eginda kultur jardunetik etorkizun bateratu bat lantzeko aukera erreala. Herriko nortasunari eta asmo berrie lekua egiten dien proposamen oso bat.

✓ Azkenik enpleguan erreparatu nahi dugu. Egun 25 langile ditugu eta abendutik aurrera 26 izango dira. Txostenean behin eta berriz errepikatzen dugun moduan, gure ereduak enplegua sortzeaz gain bere egonkortasuna bermatzen du. Perstona bera jartzen bait dugu erdigunean eta aukera anitzak eskeintzen ditugu pertsonen formakuntzan.

Orain, adibidez, nahiz eta ostalaritza gunean lana asko jeitsi den (eta badirudi horrela jarraituko duela eta ez garela inoiz lehengo neurrietara itzuliko) beste arlo askotan lan ugari dugu eta plan bat osatzen ari gara. Helburua ostalaritza langileak formakuntza egoki batekin beste finantziario arloren batera edo kultur jarduera mantentzeko beharretara bideratzea da.

Ez dugu plantila jaisteko arrazoirik ikusten. Gainera, asko ez bada ere, datozen urteetan zertxobait igotzea aurreikusten da.

25 langile horietatik 21 lagun Azpeitikoak dira eta beste 4rak inguruko herrietakoak. Gehienak, %72a inguru, langabezian zeuden gurekin hasi aurretik. Langileak hartzeko prozedurak ezarriak ditugu (AKMak adostuak) eta hauek eragina dute datuotan.





Kudeaketa ekonomikoaren plana

Ekonomia aldetik non gauden

Datozen urteetako kudeaketa ekonomikoa planifikatzerakoan, txostenean adierazi dugun bezala, aurrekontu garrantzitsu bat osatzeko moduan izango gara.

Ekonomia aldetik urte oso gogorra bizitzen ari gara, eta datozen urteak are eta gogorrago izango diren beldur gara. Aieru hori oraindik eta ilunago ageri zaigu kontutan izanda kultura bezalako arlo garrantzitsu bezain prekario batetik mintzo garela. Zorionez, ordea, ez dira alferrikako gertatu azken urteetako lanak eta esan dezakegu kontrako abagune baten arriskuei aurpegi emateko aski sendo ikusten dugula Kulturaz kooperatiba ekonomiaren aldetik ere.

Proiektu honi erantsi diogun azken itxierako egoera balantzea ikustea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Gure orain arteko ibilbidea batetik, eta aurrera begira jarrita, izan ditzakegun bilakaeraren errentagarritasun adierazleak, kaudimen garantiak, sendotasun neurriak, eta likidezia eta diruzaintza mailak bestetik, sasoiko gaudela erakusten dute. Eta hala iritziz gero zorpetzeko baldintzak aukerakoak izan arren, ez dugu horretarako beharrik ikusten lehen eginiko inbertsio ugariaren errentagarritasuna handitzeko boladan betean baigauke. Datozen urteetarako ibilbide ekonomikoa adieraten duten ROA (Return On Assets) eta ROE (Return On Equity) adierazleak ere oso aldeko ditugu, irabazi asmorik gabeko kooperatiba bat garela ahazten ez bazaigu.

Beste era batera esanda, une honetan, 10 urteko ibilbidea osatzear garela, ez dugu inongo ez prestamo, ez ordaindu gabeko fakturarik, ez bestelako zor edo kontrako kargarik. Alderantziz, kobratzeko dauzkagu oraindik 2020 urteari dagozkion diru-laguntzen, fakturen eta aportazioen %73, eta urte hauetako bide gorabeheratsuan 165.000 euroko patrimonioaren jabe egin gara. Eta horri esker, azken urteetan Azpeitiko Kultur Mahaiko hainbat eta hainbat taldek burutu dituzten hamaika proiektu diruz babestu ditugu gure ereduaren ildo nagusiekin bat etorrira. Herritik gatoz, herrira goaz, herria gara.

Abiapuntu hori gidari dugula azpimarratuz, eta bizi dugun aldi honetan zorrotzen egiten saiatuta ere, edozein aurreikuspenen fidagarritasuna nola halakoa dela aitortuta, ondoren hurrengo 3 urteetarako balizko aurrekontu batzuen proiektzioa egiten saiatuko gara. Ez dakigu orain arteko iz Egutegi Bateratua Hitzarmena edo Sormenari bideratutako Azpeitiko Udalaren ekarpena zertan izango diren proposatzen den hitzarmen berri honetan baitan, baina nola-halako batez bestekora hurbiltzen saiatuko gara.

Garbi daukaguna da, kooperatiba honek bere buruari jarria dion eredua izango dugula ipar eta jomuga. Alegia, langileen arteko soldata taulak mantenduko dira, lanpostuen arteko soldaten aldea zorrotz mugatuko da, lanpostuak eta pertsonak doitasunez baloratuko dira, duintasuna eta oreka izaki funtsezko neurgailu. Hori da gure marka eta horrek bermatu du proiektu hau bere hastapenetik.

Datozen urteetako gastuen aurreikuspenak

Honekin batera erantsi ditugu datozen 3 urteetarako gastu eta finantzazio aurreikuspenen taula. Gastuei dagokionez, ohi bezala, kultur jardueraren guztizkoaren %85 inguru kultur dinamikaren gastu zuzenetara bideratuko dugu. Beraz kudeaketa eta egiturazkoak, gastuen %15 inguru hartzea espero dugu. Munta handiko alderdia da hori, maniobra tarte galanta lor baitezakegu horri esker.

Baliteke gastu eta finantzazio hemen aurreikusi baino baikorrago gertatzea, hala ere irizpide garantistak hobesteari zentzuzkoago deritzogu.

Datozen urteetarako Kooperatibaren erronka erantsia, sormena eta belaunaldien arteko segida dinamizatzeke egingo dugun inbertsioa izango da. Gastuok kultur ekitaldi eta emanaldi berezietan egiten direnak berdinduko dituzte kasik. Lehengo ildoetako batere utzi gabe, kooperatibak AKMren eta Azpeitiko Udalaren eta herriaren behar berrietara egokitzeke, eta kultur asmo berriak pizteke daukan gogoia ez dugu ezkutatu.

Datozen urteetako finantziario bideak

Goian aipatu bezala, kultur jardueraren gastuei taxuz erantzuteke ongi kokatuta harrapatu gaitu egungo abagune petral honek, azken bizpahiru urteetako joera baikorrari esker.

FINANTZIAZIO ZUZENA

Arlo honek izan du azken urteotan igoerarik nabarmenena. Ehuntze edo saretze lanak oso fruitu emankorrek eman dizkigu nola ekonomiaren ikuspegitik hala kulturaren esparrutik. Eragileen arteko elkarlana indartuz doa urtez urte, eta Kulturaz kooperatiba bera izan denez elkarlan giro horren sustatzaile nagusi, etxean bezala sentitzen gara, hori dugu ekosistema naturala.

Bestalde, esker zorretan gaude babestu gaituen enpresa sarearekin. Fagor edo MCCk gure eremuan arreta jarri izanak oso esanguratsu jotzen dugu, eta azken bi urteetan bezala datozen hiru urtetarako hitzarmen bat dugu sinatua.

Babesletza arloko finantzazio aurreikuspenak betetzea seguru jotzen dugu.

Atal hau osatzeko, aipagarri deritzogu ostalaritza eta zerbitzuen hornitzaileak kultur arlora bideratzen dituzten aportazio, laguntza edo dohaintzak ere hona ekartzea. Zorionez ekarpen horietako hainbaten abaroa ere etorkizunerako hitzartuta dugu.

Garbi azaldu zaie hornitzaile guztiei, gurekin lana egitekotan bete behar zuten baldintza gure jardun ereduarenganako atxikimendua dela, eta baieztatu dezakegu hornitzaile gehienek bat egin dutela lankidetzaren modu horrekin. Bukatzeko, marketing, promozio eta publizitatearekin lotutako diru sarreretan, 2020koen %60a aurreikusi dugu. Espero dugu neurri horren inguruan ibiliko garela nahiz eta egoera ekonomikoak esperantzari leiho handirik ez ireki.

KULTUR JARDUERAREN SARRERAK

Atal hau gastuen araberakoa izaten da eta urtean zehar neurria hartu ohi diogun alderdia da hori, ez alferrik 10 urteko eskarmentua daukagu gure alde.

ADMINISTRAZIO DEBERDINEN LAGUNTZA, HITZARMEN ETA DIRULAGUNTZAK: Aurrez aipatu dugun moduan, gure proiektua hobetsiko balu Azpeitiko Udalarekin sinatuko den hitzarmenaren aportazio ekonomikoaren munta ezagutzen ez dugun arren, azken urteetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta, batez ere, Eusko Jaurlaritzaren kultura eta euskara sailen arreta piztu du kooperatibaren jardun-ereduak, eta elkarlanean dihardugu. EJKo Ekonomia Sailak ere Kulturaz kooperatibaren lana aintzat hartu badu ere, esan

daiteke hainbat aspektutan Kultura Sailak gure lan egiteko moduak erreferentetzat hartu dituela. Horri esker lortu dugu, Europatik funtsak oinarri dituen Sorgune bezalako diru-laguntza garrantzitsuetan baloraziorik altuena jasotzea, eta laguntza hori guri bideratzea. Publiko berriak erakartzeko ahalmena ere lehen koskan jarriak gauzkate, eta Bitarte edo Sormen Egoitzetan ere talde gailenean gaude.

Urtero eskatzen ditugu 25-30 diru-laguntza ildo. Esan gabe doa horrek langintza burokratiko gaitza dakarrela, baina urtez urte hobea da horri esker eskuratzen ari garen uzta. Laguntza horietako batzuk gainera bi-hiru urteko indarra bermatua digute. Horrenbestez finantzazio alro hau dagoeneko 2022. urtera arte lotu samartua dugula esan dezakegu.

ZERBITZUEN APORTAZIOAK

Orain arte ostalaritza guneko irabaziek ekarpen oso garrantzitsua izan dira kultur dinamika finantzatzeko. Aurten, eta datozen urteetan (gutxienez 2023 arte) ez dugu ikusten ostalaritza arloak ezer finantzatzeko aukera handirik eskainiko, bistan denen Covid-19 pandemia honek Kooperatiban gogorren kolpatu duena ostalaritza saila izan baita.

Hala ere, 2018an jabetu ginen gure jarduera ezin genuela arlo jakin baten ekarpen portzentaje handiegiaren menpeko jarri. Arriskutsuegia jotzen genuen finantzazioaren monokultiboa, ahuldu gintzakeen inertzia bat zen hori. Eta gogoeta horren ildotik bestelako zerbitzuak eskaintzen hasi ginen. Horietatik berrikuntza eta finantzazio bide berri nagusiak ekarri dizkigutenak ikus-entzunezko zerbitzuak eta aholkularitza izan dira. Azken urteetako audiobisualetako zerbitzuaren lan karga (eta beraz kulturara bideratzen den fakturazioa) era esponenzialean ari da handitzen, horretarako urtez urte baliabidea eta bitarteko hobeak bideratzen ditugularik.

Oraina eta etorkizun oparoko zerbitzua bilakatu da, eta 2020an ere gora egin du indartsu. Dagoeneko, bestalde, asko dira 2021. urteari begira dauzkagun ikus-entzunezko alorreko eskaerak (pandemiak nolabait esatearren alor horren garapena "lagundu" du, enpresa munduan bidaiak nabarmen jaisteko bideetako bai izan baita piezak, makinak, mantenu gaiak eta ezagutza digitalki lantzea) eta aurrerantzean ere arlo hau asko indartuko dela espero dugu. Oreka bilatu beharko da honetan ere beste gauza askotan bezala.

Gainontzean, zerbitzu tekniko arloan jaitsiera bat espero dugu, 2018-2019 ekitaldietan izan genuen fakturazioaren %60 ingurua erdiestea helburu jarrita, kultur eta bestelako ekimen sozial jendetsuak burutzeko baldintzak ez baitugu uste egokiak izango direnik puska batean.

Azken itxiera balantzea (2019/12/31)

	AKTIBOA (ELKARTEAK DAUKANA)	
1	AKTIBO FINKOA	55,293.34
	Establezimendu gastuak	19.701,08
	Ibilgetu ez materiala	81.772,23
	Ibilgetu materiala	65.716,00
	Ibilgetu finantzarioa	0,00
	Bestelako inbertsioak	4.534,18
	Amortizazioak / Balio galera	116.430,15
2	IZAKINAK (Stockak)	21.549,00
3	AKTIBO ZIRKULATZAILEA	250659,21
	<i>Bihurgarria</i>	<u>164942,95</u>
	Dirulaguntzak 2019	157927,06
	Bestelako Zordunak (Fakturak)	16017,98
	Bestelako Zordunak (Eragile norbanakoak)	-7060,00
	Hazienda	-1.942,09
	<i>Erabilgarria</i>	<u>85.716,26</u>
	Bankuak	82.938,91
	Kaja	2.777,35
	Besteak	
	Dokumentuak	0,00
	GUZTIRA AKTIBOA	327,501.55
	INFORMAZIO KONTUAK	
	GEUK EMANDAKO ABALAK	30,000.00

	PASIBOA (NORENA)	
4	PATRIMONIO NETOA	165818,79
	NORBERE FONDOAK	165.818,79
	Kapitala	86.210,00
	Erreserbak	19.560,00
	Emaitzak	60.048,79
	EPE LUZERAKO GALDAGARRIA	23.050,22
	Epe Luzerako Maileguak	19.097,13
	Bestelako aurrerapenak	3.953,09
	EPE LABURREKO GALDAGARRIA	138632,54
	<i>Ornitzaileak</i>	<u>42.172,31</u>
	Ostalaritza hornitzaileak	33.989,97
	Kultur ekitaldien egileak	6.320,00
	Kultur egileen azpikontratak	1.452,00
	Zine pelikulak	1.862,34
	<i>Epe Motzerako Maileguak</i>	0,00
	<i>Hartzekodunak</i>	<u>79.487,62</u>
	Pertsonala	31.551,54
	Gizarte Segurantza	12.628,57
	PFEZ	35.307,51
	<i>Epe laburreko beste galdagarri batzuk</i>	16.972,61
	GUZTIRA PASIBOA	327.501,55
	GURI EMANDAKO ABALAK	30,000.00

Aurrekontua 2021

Kultur jarduera gastuen aurreikuspena

AURREKONTU OSOA	695.290	
KULTUR EMANALDIEN KOSTU ZUZENAK	572.832	%82,39
Kultur Ekitaldiak, ekimenak eta proiektuak	524.386	%75,40
Ekitaldi egileak / Sortzaileen katxeak	123.980	
Zine pelikulen erosketak	30.560	
Sormena eta transmisioko egile eta partaideen gast.	100.042	
Programazio arduraduna	38.556	
Kultur ekitaldietako produkzio arduraduna	35.564	
Proiektu eta ekimen berezien arduraduna	39.042	
Teknikarien lantaldea (bi teknikari eta erdi)	87.120	
Ekitaldietako zerbitzu teknikoaren azpikontratazioa (materiala + teknikariak)	14.105	
Zine teknikariak (takilla + proiektzioa)	29.202	
Kultur ekitaldietako langile osagarriak	13.440	
Bestelako gastuak (egileen ostatu gastuak, dietak,..)	12.775	
Promozioa eta komunikazioa	48.446	%6,95
Ekitaldien promozio gastu zuzenak	14.882	
Komunikazio arduraduna	33.564	
ESTRUKTURA GASTUAK	121.048	%17,41
GASTU OROKORRAK	50.485	%7,07
Zerbitzu Profesionalak ind+alholkularitza	2.815	
Hiru espazioen hornidurak, mantenua, garbiketa, zaintza,...	41.550	
Aseguruak	1.290	
Zergak	4.330	
Bestelako gastu orokorrak	500	
KUDEAKETA GASTUAK	70.563	%10,14
Gerentzia	36.510	
Administrazioa	27.263	
Formazioa eta LAP	3.600	
Langileen Arriskuen Prebentzioa (kanpotik)	3.190	
Bestelako gastuak, bidaiak, dietak,..	0	
FINANTZA EMAITZA	1.410	%0,20
Finantza gastuak	1.410	

Kultur jarduera finantziazio aurreikuspena

GUZTIRA FINANTZIAZIOA	695.290	
Finantziazio zuzena: Elkarlana + Babesletza + Promozioak+..	122.020	%17,46
Eragile desberdinekin elkarlana	10.770	
Babesletza desberdinak (Fagor, Domusa, Ampo, ...)	60.260	
Hornitzaile desberdinen kulturara bideratutako aport.	25.120	
Marketing, promozio eta publizitate sarrerak	25.870	
Kultur jardueraren sarrerak	203.370	%29,30
Kultur ekitaldia + kultur bonoa	125.620	
Sormena eta transmisioa: Tailer kurtso, teknika, etab kuotak	13.735	
Zinema sarrerak	51.515	
Saretzearen zeharkako sarrerak	12.500	
Administrazio desberdinekin hitzarmenak eta dirulaguntzak	205.000	%29,50
Kooperatibaren bestelako zerbitzuen aportazioak	164.900	%23,74
Ostalaritza zerbitzuen irabaziak	10.100	
Enpresa eta eragile desberdinei ikusentzunezko zerbitzuak	49.320	
Era guztietako zerbitzu teknikoak kultura eta kulturatik kanpo	84.490	
Ahokularitza zerbitzuak	14.110	
Bestelako zerbitzuak	6.880	

Aurrekontua 2022-2023

Kultur jarduera gastuen aurreikuspena

	2022	2023
AURREKONTU OSOA	714.510	732.045
KULTUR EMANALDIEN KOSTU ZUZENAK	588.640	600.620
Kultur Ekitaldiak, ekimenak eta proiektuak	541.240	550.660
Ekitaldi egileak / Sortzaileen katxeak	127.445	127.900
Zine pelikulen erosketak	29.700	29.450
Sormena eta transmisioeko egile eta partaideen gastuak	110.100	115.360
Programazio arduraduna	39.040	39.450
Kultur ekitaldietako produkzio arduraduna	36.010	35.900
Proiektu eta ekimen berezien arduraduna	39.420	39.990
Teknikarien lantaldea (bi teknikari eta erdi)	88.460	89.670
Ekitaldietako zerbitzu teknikoaren azpikontratazioa (materiala + teknikariak)	13.105	12.900
Zine teknikariak (takilla + proiektzioa)	30.050	30.500
Kultur ekitaldietako langile osagarriak	14.660	14.660
Bestelako gastuak (egileen ostatu gastuak, dietak,..)	13.250	14.880
Promozioa eta komunikazioa	47.400	49.960
Ekitaldien promozio gastu zuzenak	13.170	14.750
Komunikazio arduraduna	34.230	35.210
ESTRUKTURA GASTUAK	124.850	130.915
GASTU OROKORRAK E	51.690	54.825
Zerbitzu Profesionalak ind+alholkularitza	2.900	2.815
Hiru espazioen hornidurak, mantenua, garbiketa, zaintza,...	41.990	44.660
Aseguruak	1.290	1.290
Zergak	5.010	5.560
Bestelako gastu orokorrak	500	500
KUDEAKETA GASTUAK	73.160	76.090
Gerentzia	36.610	36.980
Administrazioa	27.560	28.010
Formazioa	5.800	7.600
Langileen Arriskuen Prebentzioa (kanpotik)	3.190	3.500
Bestelako gastuak, bidaiak, dietak,..	0	0
FINANTZA EMAITZA	1.020	510
Finantza gastuak	1.020	510

Kultur jarduera finantziario aurreikuspena

	2022	2023
GUZTIRA FINANTZIAZIOA	714.510	732.045
Finantziario zuzena: Elkarlana + Babesletza + Promozioak+..	117.310	95.970
Eragile desberdinekin elkarlana	6.890	10.990
Babesletza desberdinak (Fagor, Domusa, Ampo, ...)	60.500	27.790
Hornitzaile desberdinen kulturara bideratutako aportazioak	22.150	27.120
Marketing, promozio eta publizitate sarrerak	27.770	30.070
Kultur jardueraren sarrerak	199.995	200.115
Kultur ekitaldia + kultur bonoa	121.610	123.620
Sormena eta transmisioa: Tailer kurtso, teknika, etab kuotak	13.735	15.890
Zinema sarrerak	50.400	48.105
Saretzearen zeharkako sarrerak	14.250	12.500
Administrazio desberdinekin hitzarmenak eta dirulaguntzak	220.000	220.000
Kooperatibaren bestelako zerbitzuen aportazioak	177.205	215.960
Ostalaritza zerbitzuen irabaziak	22.965	59.100
Enpresa eta eragile desberdinei ikusentzunezko zerbitzuak	53.250	58.900
Era guztietako zerbitzu teknikoak kultura eta kulturatik kanpo	84.110	82.880
Ahokularitza zerbitzuak	14.110	13.880
Bestelako zerbitzuak	2.770	1.200

Sareko esteka baliagarriak

Gure edukia eta jarduna biltzen dituzten estekak

Kooperatibaren webgunea:

<https://www.kulturaz.eus/>

Dinamoa Sormen Gunearen webgunea:

<https://www.dinamoa.eus/>

DAPA ikusentzunezko proiektuaren webgunea:

<https://www.dapa.eus/>

Gure ikuskizun eta proiektuen argazki galeria:

<https://www.flickr.com/photos/kulturaz/albums>

Gure bideoen galeria:

<https://www.youtube.com/user/Sanagustinkultura/videos>

Prentsako agerpenak eta intereseko beste esteka batzuk:

Sanagustin kulturgunearen inguruko erreportaia Berria.eus atarian:

<https://www.berria.eus/paperekoa/1804/036/001/2016-07-22/euskal-kulturaren-aterpea-urola-kostan.htm>

Aitor Bengoetxea eta Xabier Gantzaraini elkarrizketa Argian:

<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2685/dinamoa-sormen-gunea>

Xabier Aranbarri kudeatzaileari elkarrizketa Kulturkliken:

<https://www.kulturklik.euskadi.eus/albistea/2017070613410617/sanagustin-kulturgunea-kultur-eta-gizarte-eragileak-proiektuaren-protagonista-izatearen-arrakasta/kulturklik/eu/z12-detalle/eu/>

Xabier Aranbarri kudeatzaileari elkarrizketa DVen:

<https://www.diariovasco.com/costa-urola/azpeitia/201608/20/xabier-aranbarri-gerente-coordinador-20160820005602-v.html>

Kooperatibaren jardunaz Uztarrria.eus atarian:

<https://uztarria.eus/komunitatea/Sanagustinkulturgunea>

Internet eguna 2017:

<https://www.domeinuak.eus/es/noticia/interneteguna2017-se-celebrara-en-azpeitia-organizado-por-kulturaz-y-puntueus/>

>> HERRIKO KULTUR DINAMIKATIK ABIATUTAKO PROIEKTU BAT EUSKAL HERRIARI GURETIK EMATEKO.

>> IRAGANEAN LANDUTAKO OINARRI SENDOTIK ETORKIZUNeko ERRONKA BERRIEI GOGOZ HELTZeko.